

VI. BILTZARRA

BILBO - IRUÑEA 2014

Ponentzia Politikoa



**EKOSOZIALISMOA**  
eta **INDEPENDENTZIA**

  
aralar

## **VI. BILTZARRA – Ponentzia Politikoaren AURKIBIDEA**

### 1.– Sarrera

- 1.1. Giza Eskubideak, Bakea eta Bizikidetzaz
- 1.2. Erabakitze Eskubidea da Egiatzko Demokrazia
- 1.3. Iraultza Soziala da ezker berriaren helmuga

### 2.– Egoera politiko berriaren analisia

### 3.– Aralarren erronkak eta norabidea

#### 3.1. BALORAZIO ETA BERRESPENA.

V. Kongresualdian hartutako konpromisoen betetze maila.

- 3.1.1. Aralarren erreferentzia ideologikoak
- 3.1.2. Sakontze Demokratikoa.
- 3.1.3. Gizarte Eskubideak.
- 3.1.4. Internazionalismoa.
- 3.1.5.– Herrien Europaren alde
- 3.1.6. Independentismoa.
- 3.1.7. Hizkuntza, Hezkuntza eta Kultur Eskubideak.
- 3.1.8. Etorkizuneko ezker abertzalearen elkarlan estrategikoa eta taktikoa.
- 3.1.9. Aralarren berrantolaketa.
- 3.1.10. Komunikazioari eta komunikabideei buruzko proposamena.
- 3.1.11. Militantearentzako zuzeneko arretarako proposamena.

#### 3.2. HEMENDIK AURRERA ETORKIZUNA

- 3.2.1. Aralarrek egin beharreko ekarpena etorkizuneko ezker abertzaleari eta ezkertiar, abertzale eta independentisten mugimenduaren egituraketari.
- 3.2.2. Gernikako Akordioaren garapena.
- 3.2.3. Euskal Herria burujabetza bidean. Autodeterminazioa edo Erabakitze eskubidea eta Lurraldetasuna.

#### 3.2.4. Sakontze Demokratikoa.

- Askatasuna, Herritartasuna, Naziotasuna.
- Feminismoa eta Aniztasuna
- Euskal Herria inklusiboaren alde. Arrazakeria, xenofobia, faxismoa eta intolerantziaren aurka borroka dezagun
- Gazteria
- Gardentasuna
- Demokrazia esku hartzailea, Auzolana eta Kogestioa

#### 3.2.5. Iraultza Soziala.

- Etorkizuna ekosozialista izan beharko da

#### 3.2.6. Ireki Bidea Independentziari

#### 3.2.7. Desobedientzia zibila.

#### 3.2.8. Borroka soziala: masa borrokak

#### 3.2.9. Euskal Herriko egituraketa instituzionala.

- a) Finantza eta garapen ekonomi errealerako kutxa publikoa
- b) Ikerkuntza publikoa
- c) Hezkuntza sistema / Lanbide Heziketa eta Euskal UniBertsitatea
- d) EITB
- e) Osasun Sistema Publikoa
- f) Botere Judiziala
- g) Udalbiltza

#### 3.2.10. Formakuntza etengabea.

#### 3.2.11 Afiliazioaren formakuntza ideologiko eta politikoa.

## **I. TITULUA: SARRERA**

Aralarrek bere sorreratik adierazi du, Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa xede izanda, euskal gizarteak beharrezkoa duen ezker abertzale zibil eta zabalaren premia; euskal gizarteari iraultza sozialerako eta erabaki eskubidearen garapenerako tresna eraginkorra eskaintzeko helburuaz. Zentzu horretan, ekarpena egiteaz gainera, bere ahalegina ere egin du, alderdi politikoen barne demokraziaren oinarriak landu eta ezartzeko. Militante bakoitzari ahotsa eta bozka emanaz, alderdiko erabakiguneak irekiaz, eztabaidak edukiaz eta gizarteari irekiaz, nahiz eta sarritan mikatzen izan. Finean, Aralarren helburua ez da alderdi politiko gisa irautea, gizartearen zerbitzatzea baizik. Ahalegina egitea, ezkerrekoak, independentistak, soberanistak eta abertzaleak diren bidelagunak bilatzea indarrak metatzeko. Euskal herritarrei iraultza sozialerako bitarteko eraginkor, partehartzaile eta demokratikoa eskaintzeko. Halaber, politikagintzak herritarren aldetik sinesgarritasun eta atxikimendua berreskura dezan. Izan ere, politika norbanako zein kolektiboarentzat beharrezkoa den bitartekoa da, baliagarria beharko lukeena eraikitzea delako alderdi politikoen zeregina.

Beraz, ondorengo lan esparru nagusiak eta helburuak esku artean, VI. Biltzarrerako ponentzia politikoa aurkeztu nahi dugu: dena eman dezagun, dena aldarrikatzeko.

### **1.1.- Giza Eskubideak, Bakea eta Bizikidetzak**

Bide orria. Bide orria Gernikako Akordioak markatzen du. Bakea ez zaio herri honi oparitu, ezta oparituko ere. Aldebakarrekotasuna da bidea, orain arteko ildoari jarraiki. Ezin gara Madrilen zain geratu.

Giza eskubideak. Irabazlerik eta galtzailerik gabeko gizarteak dugu helmuga. Giza eskubideak dira zoru komun bakarra. Elkarbizitza demokratikoa bakean, berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritzen da.

Amnistia. Gure xede izaten jarraitzen du. Nazioarteko esperientziak erakusten digunez, gatazka armatuen bukaeran amnistia da bakearen frogak eta elkarbizitzaren oinarria, preso politiko eta iheslariak etxeratuz.

### **1.2.- Erabakitzearen Eskubidea da egiazko demokrazia**

Demokrazia. Euskal Herriari erabakitzeko eskubidea dagokio, nazioa delako. Demokrazia legearen aurretik eta gaintik dago. Erabakitzeko eskubidea, gainera, norberaren nortasuna zehazten duen eskubidea da.

Europa. Eskozian edota Katalunian gertatuko denak eragin zuzena izango du gurean. Horregatik, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearen aldarrikapena Europako gainontzeko nazioekin elkarlanean egin behar dugu.

Aniztasuna. Demokrata orok, abertzale izan edo ez, erabakitzeko eskubidearen alde kokatu beharko luke, soilik demokrata izateagatik. Gizartearen aniztasunaren errespetu osoak erabakitzeko eskubidea aintzat hartzea eskatzen du.

Lurraldetasuna. Euskal Herrian erabaki esparru ezberdinak aitortzea eta errespetatzea beharrezkoa da. Iparraldea, Nafarroa eta EAEko herritarrek erabaki esparru bezala aitortzen baitituzte, beren nazio aukera edozein delarik ere.

Independentzia. Gure hautua independentzia da, beste hautu guztiei diegun begirune demokratikoa ozenki aitortuz. Eta hautu hori ez da soilik Euskal Herriak bere herri izatea berma dezan, krisi ekonomikotik aterabide egokiagoak eskuratu ahal izateko ere bada.

Burujabetza: gizartearen eta herritarren burujabetasun demokratikoaren aldeko hautua egiten dugu. Burujabetza xede, demokrazian sakontzeko bideak irekitzen ahaleginduko gara. Horretarako herritarren eta erakunde gertukoenen erabaki eskubidea defendatzearekin batera, aldarrikatuz eta praktikara eramanez.

### **1.3.- Iraultza soziala da ezker berriaren helmuga**

Errekuperazioaren gezurra. Ez da egia krisia gainditzen ari garenik. Krisia eragin dutenek gizartea pobretzea dute helburu, eta hori normala dela sinestarazi nahi digutelako esaten dute krisia gaindituta dagoela.

Justizia soziala eta ekologikoa. Ekitatea, ingurumena, aniztasuna babestuz osasuna, hezkuntza, inbertsio politika, zerbitzu sozial duinak guztientzat. Hartutako zorra berraztertu (herri ikuskaritza), aberastasuna banatu, planetarekin eta planetako herri guztiekin hartutako zor ekologikoa aintzat hartu, usurpatzaile eta herri pobretuen arteko erlazioak birdefinitu eta justiziaren ildora eramateko ahaleginak egin.

Oinarrizko errenta. Pertsona bat bera ere ez bazterketa egoeran! Oinarrizko errentak unibertsala eta duina behar du. Pobreziaren zabaltzea gizarte osoaren arazo nagusietakoa da.

Etxebizitza eskubidea. Etxebizitzen desjabetzeak dira burbuila kapitalista anker baten azkeneko ondorioak. Sortutako burbuila horretan, bankuen esku hartzeak berehalakoan dirua pilaka irabazteko moduan sortu ditu egitura legezko eta merkantilak eta, ondorioz, desjabetzeetan bukatzen dira. Beraz, kaltetuak, familia eta norbanakoak egitura honen azken biktimak dira. Biktima horiek babestea lehentasuna izan behar da.

Enplegua eta lana. Lanpostuak ez suntsitzeko eta mantentzeko politiken ezarpena gure ekinbidearen oinarri izateaz gain, enplegu duina -bizitza proiektuak garatzea bermatuko duena-, sortzeko ahaleginari lehentasun osoa eman behar zaio gizartetik eta erakundeetatik. Lan erreformak ez du lanik sortzen eta prekarizatu egiten du dagoena. Aberastasuna, enplegua eta lana banatzeko formulak eta aukerak asmatu eta indarrean jarri beharra daude, enpresa berrien sorkuntzan eta autoenpleguan lagunduz. Halaber merkatal obi berrien azterketan, ezagutzaren munduan, elikagaien subirotasun eta gure lehen sektorean laguntza emanaz.

Gure industriaren lehiakortasuna ez da bakarrik I+G+Btik igarotzen; enpresa ehuna zergapetuko ez duen energi garbien kostutik ere. Horretarako energia eredu publikoetara jo behar da eta autokontsumora, orain arte monopolioen eskuetan dagoen zerbitzua bermatu dezan.

Etxean, bizikide guztien arteko lan banaketaren parekidetasunean sakondu behar dugu.

Gardentasuna eta ustelkeria errotik ezabatzea. Ustelkeria kasuen drama politiko eta sozialaren aurrean, gardentasun guztia eta zero tolerantzia. Gainera, demokrazia partehartzaileak oinarria gardentasunean dauka.

Demokrazia esku hartzailea eta auzolana. Herritarren esku hartzea gizartearen zeregin eta ondare publiko guztien kudeaketan areagotu behar da. Botereak bazterturik dauzkan sektoreak ahaldundu behar dira (emakumeak, etorkinak, edadeko pertsonak...). Demokrazia ordezkartzaileak ezinbestekoa du demokrazia esku hartzailearen osagarria. Eraldaketa soziala, ekonomikoa eta politikoa ez da posible izango herritarrengana hurbiltzen ez bada.

Erakundeak herritarren parte hartzeari ireki behar dira, gizartea ahaldundu eta egiazkoa demokrazia partehartzailea artikulatzeko bitartekoak ezarri behar dira.

## II. TITULUA: EGOERA POLITIKO BERRIAREN ANALISIA

**EZKER BERRIA ETA IRAULTZA SOZIALA.**– Bere burua ezker abertzalearen barruan kokatzen duen alderdi politikoa izanik, Aralarrek bere VI. Kongresurako egin beharreko egoeraren analisisa hiru ardatzen arabera landu beharra dauka:

a) Ezker politikoaren analisi orokorra, sistemaren baitan daukan esku hartze politikoa zein sistema politiko gisa eskaintzen duen alternatiba eztabaidagarria aintzat hartuta. Eta hori guztia globalizazio aro anitz honetan eta 2008. urtean jatorria daukan egiturazko krisiaren gainditze edo asimilazio egoeran kokatuta.

b) Euskal Herriak nazio gisa daukan egoeran, bake prozesua da lehendabiziko kezka nagusia, gaur eguneko krisi ekonomiko eta langabeziarekin batera. Bake prozesua bukatu egin behar da eta hori Aralarrentzat ahalegin berezia da. Zorionez, eta Gernikako Akordioan erabaki bezala, bake prozesua aldebakarrekotasunez ari da garatzen eta hori duintasun demokratikoaren bermea da. Bakegintza ez dago geldituta eta bi urrats nagusiak emanda daude: alde batetik borroka armatua behin betirako uztea eta, bestetik, armagabetzea. Baina, aldebakarrekotasunak ipintzen dituen ibileran joan beste erremediorik ez da geratzen, estatuak inolako ahaleginik egin nahi ez duelako. Euskal Herriak behar ditu galtzailerik eta irabazlerik gabeko berdinen arteko gizartea eta bizikidetzak. Biktima guztiak aintzat hartuz, preso politikorik gabe, eta egia eta erreparazioa kaltetu guztiei bermatuz.

b´) Bestalde, Euskal Herriak nazio bezala erabakitzekeo eskubidearen gauzatzea du erronka, eta horrekin batera bere ezaugarri nagusi diren hizkuntza eta ikurren defentsa.

c) Ezker abertzalearen osaketaren egoerak izan dezakeen eboluzioaren analisisa. Euskal gizartearen esparru politiko nagusia har dezakeen eragile politiko bezala aintzat hartuta, eta kontuan izanda Euskal Herriaren eraldaketa gidatu dezakeela, beti ere bere helburu historikorako bidean, askapen nazionala eta soziala, alegia.

Egoeraren analisiaren hirugarren ardatz honetan, Aralarrek zintzotasun eta sakontasun osoz aztertu behar du ezker abertzalearen baitako egitura berriaren sorrerari egin dakioken ekarpena. Egitura berri hori eraginkorra izan beharko da gizartearentzat eta bere barne funtzionamenduan demokratikoa. Aldi berean, ilusioa sortzeko, bidea marrazteko eta giza partehartze bideak zehazteko gai izan beharko da.

Ezker politikoaren egoeraren analisisa egiterakoan, ideologia eta proposamen gisara aztertuta, “sistema kapitalistaren” edo zehatzago esanda,

neokapitalismoaren alternatibarentzat lekua dagoen edo ez eztabaida beti izan behar da kontuan. “Ideologiaren amaiera” gezurretako topiko oso kaltegarria da ezkerreko proposamen politiko aurrerakoientzat, baina askotan, ezkerrek ez du asmatu edo ez du jakin izan horri nola erantzun.

Lehenengo eta behin, aitortu beharra dago “iraultza estatalak” bezalako erreferentziak zaharkituta geratu direla sistemari alternatiba ekonomikoak aurkezterakoan; besteak beste, inoiz ez direlako izan egiazko alternatiba eta sistema kapitalista estatu mailakoa inoiz ez delako izan. Baieztapen horrek ekarri du, sistema alternatiboa eskaintzeko edo aldarrikatzeko orduan, “iraultza” terminoa alde batera uztea. Izan ere, XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran horixe izan zen ezkerreko alderdien identitatearen ikurra eta beren programen mamia.

Ezker berriaren identitatearen ikurra “iraultza soziala” izan behar da, gaur egungo gizarte eredia, garapen eredia errotik aldatzeko. Erroetara joatea besterik ez dugulako, bidegabekeria, lubaki soziala areagotzen ari den oraingo gizartea aldatzeko. Giza berdintasuna, interes komuna norbanakoen eta gutxi batzuen interesen aurretik jarriko duen borroka politiko, sozialtzat ulertzen dugu. Pertsonen arteko aukera berdintasun erreala lortzearen baitan jardun politikoaren lehentasunak eta programak ezarriz. Horregatik, Aralarrek “iraultza soziala” terminoa erabiltzea proposatzen du, zeinaren egikaritzea demokrazia partehartzaile eraginkor eta gizartearen ahalduztetik etorriko den.

Egia da aintzat hartu beharreko mugimendu politiko modernoek –Suminduen mugimenduak, eta beste mugimendu berri batzuk, esaterako– ez dutela iraultza kontzeptua aldarrikatzen ez erabiltzen. Beraz, beren proposamenak ez dira eta ez dute izan nahi “sistemari alternatiba”; beren helburua norabideak zuzentzea, jarduteko ereduak aldatzea eta abar dira. Baina egia da, aldi berean, horixe dela desobedientzia zibilaren helburua, eta mugimendu berri horiek lotura zuzena dute horrekin.

Sinetsita gaude ideologiek beti irauten dutela eta iraungo dutela, politikaren baitakoak direlako eta pertsonaren izaera sozialaren baitakoak direlako. Eta baita ere ideologiak etikaren eta politikaren arteko beharrezko konexio puntuan daudelako. Ideologiek erreferentzia edo helmuga bat dute berez, utopia kontzeptuarekin defini daitekeena eta ezinbestekoa dena, bere egitekoa delako borroka eta eztabaida ideologikoetan eragitea eta praxiaren panoramika zehaztea.



Egungo sistema kapitalista bezala definitzea zuzena eta nahikoa da? Bistan da ezetz. Sistemaren eboluzioaren egungo egoera ez da bere konplexutasun osoan definitzen soilik “sistema kapitalista” izendatuta.

Sistema kapitalistaren egungo egoerak, neokapitalismoak, bere izaeraren ikur bezala hartu ditu ekonomiaren plangintza eta eragile ekonomikoak estatuen gainteko enpresa interesen eta estatuen esku hartzearen, Keynesianismo bezala definitu ohi dena, menpean kokatzea. Adibiderik hurbilekoena Europako Batasunean daukagu. Antzinako SESBn baino zehaztasun eta zorroztasun handiagoz estrategiak diseinatzen ditu bere helburuak lortzeko, kasu honetan neokapitalistak, baina bitarteko sofistikuagoekin eta erabat ez demokratikoekin. Adibideak jartzearen: Azpirotzeko behi baten esne ustiakuntzak, Bastidako ardoaren ekoizpenak edo Garazin burdinola jartzeak Bruselaren “administrazio baimena” behar dute. Beharrezkoa den berme demokratikorik gabe, gainera.

Gaur egungo neokapitalismoaren ezaugarrietako bat merkatu desregulatuak artikulatzen dituen botere finantzieroaren gehiegizko nagusitasuna da. Finantza kapitalak ez du ekonomia errealean inbertsiorik egiten, bere finantziario funtzioa alboratu egiten du eta bera xede bihurtzen da.

Iraultza teknologikoaren, sektore publikoak ekonomian egindako esku hartzearen eta merkatuaren nazioartekotzearen arabera definitu ohi da neokapitalismoa. Baina bestelako elementuak ere hartu ditu bere baitan: estatuen gainteko planifikazioa, esaterako; eta horrek berarekin dakar interesak aztertzeko oso zailak diren helburuen eta erakundeen mendean jartzea. Europako Batasunaren eta AEBekin eta Kanadarekin negoziatzen ari den TTIP eta CETA merkataritza librerako hitzarmenak mugarriak izango dira neokapitalismoaren eboluzioan oraindik eta arrisku handiagoan jarriko du Europako prestazio sozial publikoen eredua, eraldaketa energetiko, herritarren oinarrizko askatasun zibilak, planetaren jasangarritasuna eta herriek erabakiak hartzeko duten gaitasuna.

Hala ere, eta beharbada horregatik dirau, inoiz baino beharrezkoagoa da ezkerren eta eskuinaren arteko borroka ideologikoa, politikoa eta soziala. Izan ere, horrek guztiak garai honetako herritarren egunerokoa zein egunerokotik haratagokoa ere gaintitzen du. Arazoak politizatzea edo ideologizatzea leporatzen diena besteei da eskuineko ideologiak eta konponbideak inposatu nahi dituen, beti ere eztabaida saihestuz. Neokapitalismoaren eboluzioaren egoera parametro hauen baitan definitu beharko litzateke:

- Ekoizpen eta banaketa bitartekoen jabetza publikoaren aldarrikapena sektore publikoak ekonomian daukan konkurrentziara –oso urria gehienetan– mugatua geratu da. Ekimen publikoen interpretazioetan beharrezkoa

da ekonomiaren nagusitasuna gainditzea eta eztabaidaren erdigunera ekitatea eta helburu sozialak jartzea.

- Zerbitzu publiko unibertsalak mantentzen dira European, baina bere kudeaketan salbuespenak, mugak eta pribatizazioak pairatzen ari dira. Inperioaren metropolian 50 milioi pertsona oinarrizko zerbitzu sozialetatik eta osasun zerbitzuetatik at utzi dituzte, eta hori Clintonek eta Obamak ere ezin izan dute zuzendu. Horrek dakar inperioaren erdian bertan hirugarren mundua - kontzeptu honen erabilera okerra izan arren- egotea; eta horrek orekak hausteko daukan arriskua neurtzea oso zail egiten du.

- Zerga politika da oraindik errentak birbanatzeko bidea eta baliabide publikoen jatorria, eta horietan bietan du zutabea berdintasunaren oinarrizko printzipioak. Zerga politikak ekologikoa izan behar du, jasanezina den egungo ekoizpen eta kontsumo ereduaren kanpoko kosteak internalizatzeko.

- Kooperatibak bultzatu behar dira, hain zuzen ere, kooperatiba autokudeatzaileak: irabaziak banatzeko orduan, zati bat enpresaren funtserako da, beste bat ikerketarako, hirugarrena beste kooperatiba bat sortzeko funts baterako, eta horrela behin eta berriro. Ekimenak aztertu beharko lirateke, besteak beste deskontu-bonu berdea.

- Interes komunak interes pribatuen aurretik jartzea eta pertsona guztiek aukera berdina izatea. Horiexek izan behar dira hezkuntzako, kulturako eta sustapeneko politiken lehentasun nagusiak; eta, gainera, eskuinaren eta ezkeraren -hau da, kontserbadoreen eta aurrerakoien- arteko borroka ideologikoen betiko esparruak izan dira.

- Ingurumenaren defentsa -etorkizunarekin elkartasuna- aurrerapen ekonomikoen aurretik jartzea eta balore nagusi bezala hartzea neokapitalismoarekin izan beharreko borrokagune nagusietako bat da.

- Eskuin/ezker konfrontazio dialektikoaren beste esparru batzuk dira: eskubide zibilak, parte hartze politikak, kontrol publikoa -kogestioa-, kudeaketa gardena eta ustelkeria ezabatzea -zero tolerantzia-.

“Egiazko sozialismoaren” erortzea, SESBk gidatzen zuena, “Berlingo harresiaren erortzea” bezala ere ezagutzen dena, ez zen guda baten ondorioz ez eta desastre ekonomiko baten ondorioz gertatu; arrazoi desberdinen batuketak eragin zuen, horietatik arrazoi ideologiko eta sozialak nagusienak izanik. Egiazko sozialismoarekin konpromisoa hartutako herrialdeetako gizartearen eboluzioaren ondorioz gertatu zen. Berlingo harresiaren erortzearen inguruko analisi ideologikorik, sozialik eta ekonomikorik ez egoteak harridura sortzen du.

Zalantzarik gabe, gai honek azterketa gehiago eskatzen du, baina agerian uzten du sozialismo erreala moldatu dituen ideologia demokratikoek egindako eraldaketaren birtualtasuna.

Sistema kapitalistaren egoera 2008an eztanda egin zuen krisiak baldintzatzen du. Krisia gainditua dagoela esaten digute, baina egiaz bere ondorioak denboran mantentzeko helburua baino ez dago.

2008ko krisiaren erantzulea edo arduraduna neokapitalismoa da, baina paradoxikoki, neokapitalismoa bera da krisia bere interesetarako baliatzen ari dena. Egoera honetan, ongizate estatuaren egiturak, pertsonen eskubideen unibertsalizazio bezala ulertuta eta dagozkion prestazio publikoekin, deuseztatzeko ahaleginean ari da neokapitalismoa, eta krisitik -beraiek eragindako krisia- irtetea erabiltzen dute aitzakia bezala; aldi berean, eta borroka ideologikoaren baitan, nazioarteko merkatuen globalizaziora egokitzeko bide bakarra sistema kapitalista dela adierazten digute. Ongizate estatuaren defentsa izango da eskuinaren eta ezkeraren arteko talkaren -ideologikoa, ekonomikoa, soziala, sindikala eta politikoa- fronte nagusietako bat hurrengo hamarkadetan. Ongizate estatuaren aldeko borroka horren garrantziak eskatzen du "iraultza soziala" terminoa erabiltzea.

Horrela, neokapitalismoak klase menperatzailearen baitan metaketa prozesuak azkartzeko krisi ekonomikoa eta finantzieroa probesten ari da, ustiaketa arlo ezberdinei bidea irekiz, adibidez:

- Klase esplotazioa, lehiakortasunaren eta enplegua sortzearen aitzakiarekin langileriaren baldintzak okertuz, non lan bat edo bizitza baldintzak duinak edukitzeko ez den nahikoa bazterketa soziala eta pobrezia ekiditeko.
- Genero esplotazioa. Lan baldintzen okertzeak, eta neokapitalista "erreforma" ekonomiko eta laboralak, bereziki eragin eta kaltetzen ditu emakumezkoak; krisi aurretiazko haien egoera dagoeneko larria baitzen. Berdintasun plan eta politikak erakunde guztietan orokortzen diren bezela, aplikatzen diren gizarte eta ekonomiko politikak gehiegizko androcentrismo bat falta dute, etxeko lanetan emakumezkoari lan zama haundituz, eta gizonezkoaren aportazioa eta partehartzea, salbuespenak salbu, testimoniala den, guztiarekin, emakumezkoak lan arlo formalean egoreak behin behinekotasun eta prekarietatera menperatzen eta kronifikatzen dituzte.
- Ingurumenaren esplotazioa. Kapitalismoaren ezaugarri hedakorrak naturaren adiskidetze batekin baterazina da. "Kapitalismo berdeak", "garapen jasangarria" edo "jasangarritasunaren" konzeptuak bereganatu eta bere edukiaz hustu ditu; naturaren errekurtsioetara gero eta sarbide haundiago bilatuz. Kapitalismoa beti

izan da ekologikoki suntsitzailea, baina azken egunotan neokapitalismoaren eraso Lurraren kontra areagotu egin da, epe motzerako irabaziak lortzeko.

Iragartzen duten krisi ekonomikoaren gezurra adierazle ekonomikoaren bidez laguntzarekin batera klase genero, arraza, kultura eta ekologiaren esplotazio eta menderatzearekin batera doa. Horrela aberastasuna klase menderatzailengana bideratzea bizkortuz; desberdintasun soziala areagotuz, krisi ekologiko, sozial eta zaintzarena larrituz; gatazka armatu eta interbentzio militar inperialistak areagotuz; migrazio fluxuak zabalduz eta migrazio politikak gogortuz eta abar.

Ikuspuntu dialektiko batetik, sistema neokapitalistaren definizioak eskatzen du bere erreferentzia generikoak edo historikoak gainditzea. Aurre egin behar dugun hori ondo ezagutzea beharrezkoa da. Lehenengo eta behin, finantza eta merkatu erakundeen antolaketa baino askoz gehiago da neokapitalismoa; nazioarteko arauen, egituren eta konexio politikoaren eta juridikoen izaera komunen batuketa baino gehiago da; nazioarteko merkatuetan merkantzien produkzioa eta komertzializazioa arautzen duten sistemak eta legediak baino askoz gehiago da. Neokapitalismoa printzipio edo ideia batzuetan eta ekoizpen eta merkatu praxis batean oinarritzen da. Lehen ideia da, hain zuzen, ez duela ideologia jakin bat osatzen; hori falazia hutsa, baina oso eraginkorra bere babes dialektikorako eta debatea saihesteko. Produkzioan eta merkaturian irabazi ekonomikoa bilatzeak osatzen du praxia. Kapitalismoaren eta neokapitalismoaren artean: ezberdintasun teknikoak eta soziologikoak gainera, ideologikoak ere badaude. Kapitalismoaren teorian, produkzioa da klaseen bereizketa eragiten duena; neokapitalismoan, aldiz, kontsumoa da elementurik integratzaileena eta produkzioaren erreferentzia eta, aldi berean, klase kontzeptua lausotzen duena. Kapitalismoak “esplotazioa” eragiten du, neokapitalismoak “mendean hartzen” du.

Hazkunde, aberastasun eta garapen adierazle berriak sartzeko lana egin behar du ezker berriak. Egungo adierazleek ez dute neurtzen giza garapena, garapen ekologikoa, aberastasunaren banaketa, etab. Gizartea ente ekonomiko huts moduan hartzen ez duten adierazleak sartu behar dira balioen alde borrokatzeko eta gizartea ahalduntzeko. BPGaren hazkunde hutsak ez du erakusten gizarte baten garapena eta hazkundera, ez bada kontuan hartzen haren kostu ekologikoa, aberastasun horren banaketa, desberdintasun adierazleak, gizarte horrek dauzkan oinarritzko zerbitzuak, eskubide zibilak eta politikoak, etab.

Komunikaziorako tresna berrien parametroetan gizarte berritzeko erronka ere badauka ezker berriak. Gizartea bera, gizartearen eta bere osagai guztien – familia, klasea, giza ingurua– arteko uztarketa da aldatzen ari dena. Horren arrazoiak dira prestakuntza, teknologia, komunikazioa, komertzioa eta ideologia;

horren arrazoiak ez dira soilik produkzioaren, lanaren eta administrazioaren arteko harremanak.

Baldintza berri horietara egokitzea beharrezkoa da erakunde politikoentzat, eta horrek eskatzen dio ezkerriari, ezker abertzaleari eta horren baitan Aralarri zintzotasun ideologiko osoz eta ausardiaz jokatzeko bere jardun politikoan. Politikoki harremanak izateko XIX. eta XX. mendeetako metodoak zaharkituak geratu dira eta, beraz, beharrezkoa da politikan –eta zehatzago izateko ezkerreko esparruan– antolatzeke ereduak aldatzea.

Borroka ideologikoan egin beharreko ahaleginak biderkatu egin behar ditu ezker berriak eta aurrerakoitasunaren eremuan bere mezuak indartu. Aurrerakoitasuna honela defini daiteke: giza eskubideen, eskubide zibilen eta berrikuntzaren defentsa, ikuspegi horretatik eskubide sozialak defenditzeko helburua.

Neokapitalismotik ezkerriari ezarritako amarru sofistikatuenetako bat da aurrerapenaren atal batzuk bere egin izana; askotan, itxurakeria eta propaganda baino ez da, baina hortxe geratzen da agerian neokapitalismoaren eta kapitalismoaren arteko ezberdintasun dialektikoa. Era horretara, neokapitalismoak bere egiten du giza eskubideen defentsa, nahiz eta salbuespenak egin –lege antiterroristak edota atzerriko esku hartze justifikatu gabeak edo helburu ekonomikoengatik egiten direnak, esaterako– eta legalitatearen barrua sartzen du; hala, legalitate positiboa printzipio demokratikoen aurretik jartzen du, erabakitzeko eskubidearen gaiaren inguruan egunero egiaztatu ahal dugun bezala. Zerga politika progresiboaren eta funtzionamenduan gardena –ustelkeriarekin amaitzeraino– izatearen beharra bere egiten du nominalki neokapitalismoak, baina beti ere baldintzatua eta egitura legalei eskubide zibila, sozialak eta politikoak mugatuz botere exekutibo eta partidistek menderatutako eta zuzendutako jurisdikzio egituren bitartez. Genero berdintasunaren aldeko borroka ere bere egin du neokapitalismoak, baina gero hartzen dituen erabaki sozial eta ekonomikoek larriki kaltetzen dute emakumezkoaren egoera, generoen arteko ezberdintasuna areagotzen eta aukera berdintasuna emakumearen kontra murrizten. Ingurumenaren defentsaren kasuan ere, sistemak bere egin ditu “garapen iraunkorra” edo “iraunkortasuna” bezalako terminoak, horien jatorrizko esanahia hustuz etengabeko hazkunde eredu mantentzeko. Gauza bera egin du, esaterako, parte hartzea, gardentasuna edota ustelkeriaren aurkako borrokarekin.

Ezker tradizionalaren atal bat, sozialdemokrazia, neokapitalismorako bidaiari egiten ari da edo hor hartu du jada lekua; Keynesianismoaren lurreratze arrapala erabili du horretarako, hau da, merkatuen funtzionamendu akatsak zuzentzeko, bermatzeko eta osatzeko estatuen esku hartze publikoa egitea. European,

“Alemaniako koalizio handia” dei oso garrantzitsua izan behar da sozialdemokrazia guztientzat, PSF eta PSOerentzat ere bai.

Konfrontazio nazionala dagoen eremuetan –Euskal Herrian, esaterako–, eskuinarekin elkar hartuta politikan aritzeko tentazioa dago, bakegintza, nazio eraikuntza eta erabakitzeko eskubidea nazio frontearen izendatzaile komun bezala hartuta. Katalunia ez da salbuespena eta Euskal Herrian ere tentazio bera dago. Hala ere, aintzat hartu eta aitortzekoa da Kataluinako eskuina egiten ari den bidea nahiz eta ziurtasunik ez dugun gai izango ote den prozesua bukaeraraino eramateko eta oso litekeena da Euskal Herriko eskuinak gaitasunik ez izatea erabakitzeko eskubiderako bidea gidatzeko, eta oso litekeena da Euskal Herriko eskuinari gauza bera gertatzea.

Aralarrek, egituratzen ari den ezker abertzale berriaren parte den heinean, bere ekarpena egin behar du ezker abertzale berria EZKER MODERNOA, EKOLOGISTA, DEMOKRATIKOA ETA ERAGINKORRA izateko. Hau da, nazioartean egituratzen ari diren ezker berri guztien jarreretan, programetan eta kezketan parte hartu behar du.

Baina horrez gainera, zentzu horretan Euskal Herriko independentzian prozesuan inguruan hausnarketa sakona egiteaz gain prozesua sustatu eta garatzeko ardurua nagusia izan beharko du, beti ere gizarteari izan behar duen gidaritza eta aintzindaritza aitortuz.

Ezker abertzalea ezker berriaren irizpideen arabera osatzeko lana egingo du Aralarrek; hau da, ekosozialismoa, parte hartzea, aniztasuna, feminismoa, bakezaletasuna, laizismoa eta eskubide sozialak erreferentzia gisa hartuta. Gure esloganetako bat den ‘Ezker zibila eta zabala’.

Ezker abertzalearen aldarrikapen enblematikoa, askapen nazionala eta soziala uztartzea, izan behar da ezker abertzale berregituratua eta demokratikoa eraikitze oinarria.

Euskal Herriak gehiengo aurrerakoia eta abertzalea dauka, eta hori orain ari da agerian geratzen politikaren esparruan. Bakegintzan eta elkarbizitzan daukagun egoera berriak posible egin dute gehiengo aurrerakoiak eta abertzaleak politikaren esparruan isla izatea, bai ordezkaritza instituzionalari dagokionez eta baita ere gizarteari dagokionez, kalean. Gainera, Euskal Herriak bizirautea eta garapen soziala izan nahi badu, protagonismo politiko berria behar du, 80.eko hamarkadako estatutuen araoa zein horietan protagonistak izan zirenak agortuak daudelako.

Aralarrek bere sorreratik garbi izan du zein den bere xede nagusietako bat, hain zuzen ere, ezker abertzale zibil eta zabalaren eraikuntza. Zentzu horretan berretsi zen, baita re, bere azken Biltzar Nagusian. Atzera begiratuta, ibiltzen joan garen bidea malkartsua eta zailtasunez bete izan dela ez dago zalantzarik. Baina datu objektiboa ere bada ezker abertzale zibil eta zabalerantz hurbiltzen ari garela, besteak beste, Aralarren izate eta ekarpenaren laguntzari esker eta bereziki azken urteetan -2011tik aurrera batez ere- izandako gertakari politiko desberdinei esker. Ondorioz, ezker abertzale zibila ari da dagoeneko bere lehen pausuak ematen euskal gizartean; orain anitza eta zabalaren gauzatzeari ekitea geratzen zaigu. Euskal Herriak hain beharrezkoa duena delako: ezkerrekoa, abertzalea eta demokratikoa.

Baina bidea eginez jarraitu behar da, eta ezker abertzale demokratiko eta plural berria eraikitzeke prozesuan parte hartzea eta demokrazia areagotzeko tresna horizontaletan sakonduz.

Egiari zor, Aralarrek beti amestu duen ezker abertzalea ez da gaur egun egituratzen ari den ezkerreko, abertzaleen, soberanisten bilgunea den EH Bilduren parekoa. Izan ere, EH Bilduren baitan kultura eta jatorri politiko desberdinetako alderdiak aurkitzen gara, ezker abertzaleetik haratago. Inoiz pentsatu ezineko espazio zabal, anitz eta desberdinen arteko metaketa sortzeaz gainera, dagoeneko egituratzen ari da, erakunde konkretuetara bideratutako hauteskunde koalizioez haratago. Aralarren sorreraren zio nagusienetakoari -ezker abertzale zibil eta zabala sortzeari, alegia- uko egin gabe, Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa lortzeko funtsezko tresna baita. Horrela, 2000an hasitako ibilbideari amaiera emanez, era natural batean zatiketaren zikloa itxiz. Aralarrek EH Bilduren baitan, herritar ezkertiar, abertzale, soberanista, ekologista, feminista, independentista eta demokraten bilgunea, mugimendua, eraikitzen jarraituko du, sinetsita baikaude tresna egokia dela gizarte juxtuago, solidarioagoa eraikitzeke.

Bide luzea egin da denbora laburrean, Hauteskunde Orokorretarako Amaiur koalizioa (2011ko azaroaren 20an) egin zenetik: Estrategia Nazionalerako Engaiamendua (2012ko apirilaren 28an) eta 2012ko urriaren 21an, EH Bildu sortuaz.

Guzti horren hazia Gernikako Akordioa izan zen (2010/09/25), hasieratik Aralarrek beste alderdi eta indar sozial eta sindikalekin batera bultzatua.

Baina oraindik ere aurrean dugun bidea ez da makala. Izan ere, koalizioa osatzen dugun alderdiok, eskuzabaltasunez jokatu beharko baikenuke etorkizunera begira, ohiko alderdien funtzionamenduak egokituz eta berrituz, barne demokrazia, parte hartzea eta gardentasuna sendotuz. Hala ere, aitortu beharra

dugu, bere estatutuek ongi islatzen duten bezala, barne demokraziaren bidean, akatsak akats, Aralarrek bide bat egina duela. Beraz, ausardiaz jokatu beharra dugu eta, orain arte irabazitako eta eraikitako bitarteko egokiak probestuz, jauzi bat ematea dagokigu beste indar guztiekin batera, EH Bildu bilaka daitekeen mugimendu ezkertiar, abertzale eta demokratikoa sortzeko. Ez baitigu ahaztu behar alderdi politikoak herritarren tresna eta bitarteko izaki eta ez helburu, ez dutela xede izan behar irautea bere baitako helburu partidistei erantzuteko. Ideologia eta printzipio gabeko alderdien gainbehera ez baitago geratzerik; ikustea besterik ez dago PSOE Estatuan eta EAEn PSE-EE zein Nafarroan PSNren norabidea galduta ari direla, etenik gabeko gainbeheran.

Beraz, krisiak bere atzapar zorrotzak eremu guztietara zabaldu dituen honetan – eremu sozial, ekologiko, ekonomiko, politiko, instituzional eta baita baloreen eremura ere–, politikoki inflexio puntu batean gaudela esango genuke. Erabaki ausartak bezain garrantzitsuak hartzeko unean gaude, bai alderdi bezala eta bai partaide garen koalizioaren baitan. Printzipio eta balore tinkoekin. Oinarri ideologiko eta politiko sendoak ezarriz eraikitzaera goazen etxearen orubean. Behetik gora, pertsonen aukera berdintasuna, giza eskubideak, eskubide zibil eta politikoak nagusi izango diren gizartea saretzuz. Euskal Herriko eskuinari, kontserbadoreei, eremu guztietan aurre egiteko gai izango den ezker indartsua eraikiz.

Iraganeko akatsetatik ikasiaz, etorkizunera begiratzeko garaia dugu, beraz. Urrats esanguratsu eta ausartak emanez, herritarrekin eta gizarte osoarekin konektatu ahal izateko, kontrol eta protagonismoak albo batera utzita. Aspaldi honetan, komunikabideen zurrunbiloaren baitan indarra galdu eta azalean geratzen den politikagintza irauliz. Herritik herriarentzat behar duen politika herritarren kritika eta ekarpenetan oinarrituta, autokritika etengabekoa sustatuz.

Zentzu horretan, Euskal Herrian tresna baliagarriak bilaka daitezke Euskal Herria Bai koalizioa Iparraldean eta Euskal Herria Bildu Hegoaldean. Etorkizun oparoa izan dezakete, baldin eta ohiko koalizio klasikoen jokamoldeetan erortzen uzten ez baditugu. Alderdien eskuhartze soila gainditzeko garaia iritsi da; batuketa koalizioa osatzen duten alderdiak baino gehiago delako. Hitz batez, zintzotasun osoz aldarrikatzen dituzten balore, printzipio eta proposamenak betetzeko ahalegin serioa eginez. Ez da erronka makala. Ez eta egun batetik bestera egin ahalko dena. Baina bai ahalegina egitea merezi duena. Arestian aipatu ditugun balio eta printzipioetan sinesten dugun pertsonak erantzukizunez jokatu behar dugu, eta Aralarrek, orain arte egin duen bezala, bere ekarpena egin beharra dauka, ezker abertzaleko gainerako eragileekin batera eta elkar hartuz.



Hori guztia horrela, aro berri batean ari gara sartzen, zeinetan garai batekoak ez dira hiltzen eta berriak oraindik ez diren sortu.

### **III. TITULUA: ARALARREN ERRONKAK ETA NORABIDEA**

3.1. Balorazioa eta berrespena. V. Kongresualdian hartutako konpromisoen – ebazpenen– betetze maila

3.1.1.- Aralarren erreferentzia ideologikoak

Inoiz baino argiago eta tinkoago defendatuak izan dira bere sorreratik ‘Ehkotopian’ jasotako eta ondorengo ponentzia politikoetan eta urteetan garatzen joan garen Aralarren erreferentzia ideologikoak; Aralarrek parte hartu duen guneetan eta ordezkaritza izan duen erakundeetan, bai Aralar bezala zein koalizioaren baitan.

Azpimarratzekoa da egiturazko krisi sakonaren aurrean, Madrilgo gobernutik zein Nafarroako eta EAeko gobernuetatik krisian sakontzea eta pobrezia egituratzea besterik ekartzen ez duten ezarritako politika neoliberalen eta antisozialen aurrean eginiko lanketa. Erreferentzia ideologikoak oinarri hartuta, herritarrei irtenbidea emateko neurri zehatzak proposatuz.

Hezkuntza, osasungintza eta politika sozialen defentsan ahalegin berezia egin dugu. Enpleguaren sorketan eta banaketan proposamenak landu ditugu. Zerga politika progresibo eta ekitatiboaren defentsan lan egiten dugu berdintasunaren eta elkartasunaren defentsatik, bai eta estaldura sozialerako sistema publikoa bermatzeko. Ekosozialismoan oinarritutako tokian tokiko garapena bultzatzeko saioak egin ditugu, beti ere ingurumenari lehentasuna aitortuz.

Erreferentzia ideologikoetan ezin gara ahaztu emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunaz. Gaur egungo gizarte patriarkala iraultzeko borroka feministaz. Horregatik, azpimarratzekoa iruditzen zaigu alderdi barruan, gauden koalizioan nola gizarteko erakunde eta egituretan berdintasun planak egiteko premia, nahiz eta berdintasunaren arloan aurrerapausoak ukaezinak diren.

3.1.2.- Sakontze demokratikoa

Aralarrek argi eta garbi defendatu du beti demokrazia formala edo ordezkaritzakoa. Baina hauteskunde bidez egiten den demokraziak ezinbestekoa du, gainera, bestelako osagarriak ere edukitzea.

Horregatik, berretsi egiten ditugu V. Biltzarrean sakontze demokratikoaren ildotik onartutako demokrazia parte hartzailea, iruzurraren aurkako borroka, gardentasuna, desobedientzia zibila, kogestioa eta auzolanaren aldarrikapena.

### 3.1.3.- Gizarte Eskubideak

Aralarrek aniztasunean oinarritutako berdintasunaren aldeko apustua berresten du, pertsona orok eskubide berberak ditugulako. Horregatik, pertsona askez osatutako eta berdintasunean, errespetuan eta elkartasun baloreetan oinarritutako gizartearen aldeko apustua egiten dugu, non pertsona orok eskubide zibil, politiko eta sozialak izango dituen, generoa, etnia, sinesmen, sexu, joera, jatorria, kultura eta hizkuntza gorabehera.

Aralarren marka eta ipar orratz izan dira giza eskubideak. Baina egia esan, azken urteak ez dira garai onak izan herritarrontzat, eta pertsona orok eskubide zibil, politiko eta sozialak dituela sinesten dugun eta lanean aritu garen alderdi edota kolektiboentzat. Espainiako Gobernuak kapitalaren –botere ekonomiko– eta lobby faktikoen eskutik herritarron eskubideak murriztea eta deseuztatzea izan baitu iraunkorki helburu. Eskubide zibil eta politikoetatik hasita, eta eskubide sozialekin jarraituz, ongizate estatua deiturikoaren sistema publikoa –Hezkuntza, Osasuna, zerbitzu sozialak– suntsitu egin ditu. Mentalitate aldaketa bideratu nahi izan dute, eskubide izaera ukatuz arestian aipaturiko oinarritzko eskubideei eta horren orde zerbiztu izaera salduz. Horrela, aukera berdintasunean oinarritutako gizartean haustura sortzeko helburuarekin, aberastasuna gutxi batzuen eskuetan kokatuz eta pobrezia gizartearen zati handietan zabalduz.

Azpimarratzekoak dira erakunde ezberdinetatik jasotako hurrengo datuak: enpleguaren prekarizazioa, azpimarratuz gaur egun enplegua izateak ez duela inor pobreziatik salbu uzten; gazteen bizi baldintzak okerrera egin dute; pobrezia feminizazioa; haurren pobrezia, bazterketa arrisku egoera gora egiten ari da etengabe. Beraz, edozein herrialdeetako gizartearen etorkizuna diren sektoreak egoerarik gogorrean aurkitzen dira Euskal Herrian.

Halaber, eskubideen esparru honetan ez genituzke hizkuntza eskubideak ahanzi nahi. Euskararen egoera urrun da gizartean egoera normalizatu batean egotetik eta gizarte funtzio osoak osotasunean betetzetik. Hala ere, egoera hori diferentea da Euskal Herriko herrialdeetan, bereziki, euskarak ofizialtasun maila desberdinak dituelako gureko nazioko hiru esparru politiko-administratiboetan. Euskara Euskal Herri osoan ofiziala izatea dugu hizkuntzaren normalizazioan erronketako

bat. Bestalde, pertsonen hizkuntza eskubideak errespetatzen direla bermatu egin behar da, oinarrizko giza eskubide direlako besteak beste.

Horregatik, datozen urteetan eta gaur bertan hasita Aralarren agenda politikoaren lehen lerroan jartzeko ahalegina egingo dugu:

– Pertsonen arteko aukera berdintasuna sustatu eta bermatzeko, eskubide zibil, politiko eta sozialak. Horretarako enplegu politikak agendaren lehen lerroan ezarriz, enpleguaren mantenimendua, banaketa eta sorrera sustatuko duten neurriak garatzeko; ongizate estatuaren bizkar-hezurra diren hezkuntza, osasuna eta gizarte politikak eskubide izaerari eusteko eta zentzu horretan garatzeko.

#### 3.1.4.- Internazionalismoa

Aralarrek herri guztien arteko berdintasuna eta guztiekiko errespetu, elkartasun eta justizia sozialaren aldeko jarrera ideologikoa adierazten du. Beharrezkotzat jotzen dugu nazioartean baliabide eta estrukturak izatea, pertsona guztien justizia, askatasuna eta berdintasuna bermatu ahal izateko. Aralarrek bat egiten du indar aurrerakoi guztiek defendatzen duten justizia unibertsalaren aldarrikapenarekin.

Aralarrek bere elkartasuna eta bere laguntza eskaintzen die inperialismo neokapitalista eta finantzieroak zapaldu edo blokeo ekonomiko eta politikoa jasotzen duten herriei eta oro har eskubide politiko, kultural, linguistiko eta demokratikoak ukatzen zaizkienei.

Inperialismoa eta neokolonialismoa gogorki jokutzen ari diren momentu historiko honetan, batzuetan aurrez aurre eta beste batzuetan terrorismoaren aurkako gudaz, bakearen aldeko misioz zein giza eskubideen defentsaz mozorrotuta, inoiz baino beharrezkoagoa da elkartasun konpromisoa mantentzea zapalkuntza nazional eta sozialaren aurkako borroka eta erresistentzietan. Hori dela eta, Aralarrek behin eta berriro salatu ditu eta bere elkartasuna adierazi die Herri Kurduaren, Palestinar herriaren, Saharar herriaren eta Hego Amerikako “Bigarren Independentzia” eta beraien burujabetzaren borrokei edota hainbat herrietako askatasun borrokei, eta kolonialismo zabalkundearen fase berriaren biktima izaten ari diren hainbat eta hainbat herri, kasu afrikar nazioak. Beraz, berresten gara munduko herri zapalduekin elkartasun harremanak ehuntzen jarraitu beharrezkin; eta gure elkartasuna adierazteaz gain, herri izateko eta herri bezala duintasunez bizitzeko eta beraien errekurtsoen jabe izateko herri guzti guztiek duten eskubidea aldarrikatzen dugu.

Ezin ahaztu kontinente guztien, arestian batzuk aipatuak izan direnak,

komunitateen eskubideak, multinazionalen esplotazioa jasaten dutenak, inongo babesik gabe, beren lurrak eta bizimoduak lapurtuta, lekualdatuta, eta beren gobernuen eta botere finantzarioaren mende. Desberdintasunen kontrako eta herrien eskubideen aldeko borroka horretaz kontziente izan eta aurre egin behar dio.

Halaber, azpimarratu nahiko genuke munduan dauden subirautea gatazkak modu baketsu eta demokratikoan bideratu beharko litezkeela. Eta zentzu horretan autodeterminazio eskubidea dela giltzarri funtsezkoa. Baita Karabakh Garaiko gatazkaren kasuan ere.

### 3.1.5.- Herrien Europaren alde

Europa politikoki egituratzearen aldeko apustua berresten dugu. Europaren egituraketa politiko demokratikoa Europako herritarrok nahi duguna izan beharko da, hau da, herritarren kontrolari muzin eta ihes egingo ez dion Europa. Gaur egungo Europako Batasunean oraindik ere gainegiturak dira nagusi, herritarren edozein kontrolen menpe ez dauden egiturak. Zoritxarrez, eskaintzen diguten "Batasunaren" ereduak ekonomikoa soilik izaten jarraitzen du. Ez dugu ahaztu behar Europaren egungo esparrua Europako Ikatz eta Altzairuaren Erkidegotik (EIA) jaioa dela, eta ondoren eraman gintuela Europako Ekonomia Erkidegora (EEE). Hortaz Europazaletasun kritiko batetik batasunaren balioak aldarrikatu behar ditugu munduan demokraziatzeko, bakezko eta askatasunezko eremu bat sortu delako, perfektua ez bada ere, munduan dagoen aurreratuena dena. Azkenik Herrien Europa aldarrikatzea izan da betidanik Aralarren borondatea, eta aldarri horretan berresten gara.

Herrien Europa berria eraikitzea dugu helburu nagusi. Eta, zentzu horretan, lanean jarraitu behar dugu Europako Batasun demokratikoago, sozialago eta solidarioago baten alde. Herrien autodeterminazio eskubidea aitortuko duen Europako Batasunaren alde. Halaber, Europako kultur aniztasuna babestu eta sustatuko duena eta Europako hizkuntza guztiak aitortuko dituen; nazioarteko gainerako herri, herrialde eta herritarrekiko errespetuan eta solidaritatean oinarrituta, betiere horien burujabetza eta erabakitzeko eskubidea izanik.

Aralar Europako Aliantza Librea alderdiko kidea da (EFA). Europako erakunde politiko horrek lan ildo bakar gisa herrien autodeterminazio eskubidearen defentsa eta gutxiengoaren hizkuntza eta kultura eskubideen defentsa ditu. EFA osatzen duten 40tik gora alderdietatik gehienak ezkertiarak diren arren, bere ardatza ez da eskuina/ezkerra parametroa, baizik eta Estaturik gabeko nazioen

alderdi bat izatea, nazioek beren etorkizuna eta herri nortasuna erabakitzeko eskubidea defendatzen duena. EFAko kide izateak lehen ez genuen ikusgarritasuna eman digu Europan, eta laguntza handia izan da beste alderdi eta herri batzuekin harremanak izateko, bai eta Europako Parlamentuan lan egiteko ere. Era berean, oso lagungarria da nazioarteko harremanak izateko EH Bildu koalizioaren baitan.

Une honetan, koalizioko eurodiputatua EFAko kide independentea da eta Europako Ezkerra (GUE) alderdiaren barruan dago: talde horrek ezkerreko politikak defendatzen ditu EBren baitan, baina ez du barne adostasunik herrien erabakitzeko eskubideari eta hizkuntza eskubideei buruzko gaietan.

Aralar alderdiak –soberanista eta ezkertiarra den heinean– harremanak izaten jarraituko du Europako alderdi ezkertiar eta soberanista guztiarekin, edozein izanik ere beren afiliazio politikoa, Europa desberdin bat eraikitze asmoz, Estaturik gabeko nazioek beren geroaz erabaki ahal izan dezaten, eta EB demokratikoa, gardena eta soziala bihur dadin.

Horregatik guztiagatik, lan egin daitekeela pentsatzen dugu, eta ez da inkongruentzia –alderantziz, onuragarria da– harremanak estutzea nahiz Europako Ezkerrarekin nahiz EFArekin.

Halaber, kezka handiz ikusten ditugu Europako Batasunak ematen ari den atzen urratsak. Krisi ekonomikoa gainditzeko politika neoliberalak bultzatzeaz aparte, horietan sakontzeko asmo sendoa erakusten ari da. Horien artean kokatzen ditugu adibidez TTIP eta CETA merkataritza akordioak europarron eskubide sozialen murrizketa sakontzea, pribatizazioak indartzea eta ingurugiroa babesteko legedia ahultzea ekarriko dituztelako indarrean jartzen badira. Europako Batzorde berriaren osaerak ere joera horren adierazle dela uste dugu.

### 3.1.6.- Independentismoa

Berresten dugu independentismoaren aldarrikapena. Zentzu horretan, 2011tik hona bide horretan sakontzen lagundu duten ekimenak babesteaz gain, parte hartu eta babestu ditugu. Beteak beste, gizartetik sortutako ekimen herrikoia den eta erabaki eskubidea sustatzen ari den Gure Esku Dago mugimendia, funtsezko bitartekoa independentzia bidean.

Aralarrek bere burua independentistatzat jotzen du. Gainera, aniztasunaren defentsa demokratikoa oinarri hartuta, nazionalitatea aukeratzeko eskubidea herritarren aukera pertsonal gisa defendatzen du. Abiapuntutzat hartuz

zaharkitua eta agortua dagoen gaur egungo eredu autonomikoa, eta ekimen proposamen gisa erabakitzeko eskubidea jasoko duen estatutu berrien garapena.

Bide horretan, Aralarrek defendatzen du Euskal Herriak, nazio gisa, konstituzio propioa izan behar duela Europako nazioen markoan, herritar gehienek hala erabakiz gero.

### 3.1.7.- Hizkuntza, Hezkuntza, Kultur eta ingurugiro heziketa eskubideak

Euskara eta euskal kultura Euskal Herriaren identitate ikur nagusiak dira eta gure herriak munduari begiratzeko modua adierazten dute, hein batean. Euskal herritarrek euskaraz ikasteko eta egiteko eskubide osoa dute eta esparru horretan hizkuntza eskubideen jabe dira. Salatzen dugu euskarak ez duela ofizialtasuna Euskal Herri osoan. Helburu nagusietako bat izango da, beraz, euskara oso-oso ofiziala izan dadin gure nazioaren lurralde osoan.

Euskararen normalizazioak beharrezkoa du gutxitua izateari utzi eta hizkuntza normalizatua izatera igarotzeko baliabide eta bitartekoak edukitzea. Soilik horrela berdinduko duelako bere egoera beste hizkuntza ofizialekin. Herritarren hizkuntza aukeratzeko eskubidea izango da eskubidea soilik euskara hizkuntza normalizatutzat jo daitekeenean.

Aralarrek berresten du lehentasunezko aukera dela guretzat euskal eskola publiko askea. Ezinbestekoa joaz hezkuntza sistema propioa izatea: kalitatezkoa, berritzailea, inklusiboa, kohezitzailea, benetako heziketa integrala helburu izango duena eta ez ezagupenen transmisio soila. Zentzu horretan, ildo berean jarraitzeko borondatea adierazten du Aralarrek, nahiz eta kontziente izan horrek ahalegin berezia eskatzen digula euskal gizartean oraindik gaintitu gabe dagoen eztabaida gaintitzeko. Horregatik, gizarte hausturak, konfrontazioak ekiditea helburu izanda, ikastetxeen arteko konfrontazioak saihesteko neurriak definitu eta garatzen saiatuko gara; bakoitzaren lanaren eta gizarteari eginiko ekarpenaren aitortzatik, etorkizuneko hezkuntza sistema propio eta publikoa eraikitzen joateko ekimena hartuaz.

Hezkuntzaren arloan, gurasoen eta herritarren aukerak soilik izanen dira egiazkoak hezkuntzaren sistema publikoak baldintza normalizatuak bermatzen dituenean.

Euskal Herriko kultur eskubideak ukatzen zaizkigu euskaldunoi, historia, kultura, errelato ofizialak ezartzen zaizkigun heinean.

### 3.1.8.- Etorkizuneko ezker abertzalearen elkarlan estrategikoa eta taktikoa

Berretsi egiten ditugu ezker abertzale zibil eta zabalaren helmuga eta xedea.

Berretsi egiten ditugu ildo horretan emandako urratsak eta zehazki sinatutako akordio estrategikoak eta engaiamendua.

Aralarrek berretsi egiten du akordio estrategiko hauetatik etorkizunean haratago joan beharra, hots, ezker abertzaleak behar duen egitura bateratua, demokratikoa eta partehartzailea taxutzen jarraitu beharra, koalizioko beste indarrekin batera.

Izan ere, dagoeneko jauzi kualitatiboak eman beharrean aurkitzen gara, orain arteko indar metaketa gaindituz, gizarteak eskatzen digun barne egituraketa demokratikoa eta eraginkorra eskuratzeko bidean.

### 3.1.9.- Aralarren berrantolaketa

Aralarrek bere barne mailan eta bere gaitasunen arabera ahalegin berezia egin du barne mailako egokitzapenean, ondorengo helburuen baitan: barne kohesioa, eraginkortasuna eta EH Bilduren funtzionamendu eta dinamikari erantzun egokia emateko antolaketa.

Aitortu beharra dago oraindik ere hobetzeko asko dugula, baina oro har gai izan gara egunerokotasunari eraginkortasunez erantzuteko, alderdi barruan dinamikari eutsiz, parte hartzea sustatuz eta sakonduz. Erantzuna eman diogu izan ditugun hauteskunde desberdinen erronkari, erakundeetako lanari, kale mailako borrokari eta abarri.

Aralarkide guztiak deitzen ditugu politikako esparru desberdinetan bai alderdiaren baitan nola koalizioaren baitan edota gizartearen atal desberdinetan esku har dezaten.

Zalantzarik gabe, EH Bilduren eboluzioak eta Aralarren paperak barne antolaketa sakontzen jarraitzera behartzen gaitu, afiliatu eta zaleen aportazio ideologikoa eta gure sentzibilitatekoa ezker abertzalearen antolakuntza berriari ekarpena egiteko. Bide luzea dago egiteko, eta aralarkideen eta aralarzaleen partehartze aktiboaren beharra berresten dugu.

### 3.1.10.- Komunikazioari eta komunikabideei buruzko proposamena

Zalantzarik gabe, komunikazioa funtsezkoa da Aralarren ekintza politikoan, bai eta gizartea eraldatzeko ere. Gizartean dugun jardunetik eta harekin dugun konpromisotik sortu behar du komunikazioak, ekintza politikoaren berezko

osagai gisa.

Ezbairik gabe, mezua helarazteko modu nagusia hedabideak dira, eta ahalegin handia egin dugu horretan. Ez dugu ahaztu behar, baina, botere finantzario handien eta oligarken esku daudela, salbuespenak salbuespen, eta etsaitasunez hartzen dituztela Iraultza Soziala lortzeko proposamenak.

Gure iritziz, adierazpen askatasuna eta komunikazio askatasuna funtsezkoak dira demokrazia garatzeko, baina hedabideak kontrolatzen dituzten agintari klaseak askatasun horien jabe egin, edukiz hustu eta haien atzean ezkutatu dute negozioa egiteko eta gizartea kontrolatzeko grina. Ildo horretan, hedabideen jabetza ez kontzentratzeko legeen alde gaude, bai eta hedabide publiko eraginkorren sare baten alde ere, gobernuen kontroletik kanpo daudenak, eta gizarte justuago eta berdina goen eraikuntza eta pluraltasuna bermatzen dutenak.

Guzti hori ikusita eta hedabideen garrantziaz jakitun eta kezkatuta egon gara eta gaude. Nahiz eta ezin izan dugun V. Biltzarrean erabakitako eguneroko komunikazio tresna abian jarri, uste dugu ezinbestekoa dela arlo honetan ahaleginak egiten jarraitzea.

Ohiko komunikazio bitartekoez gain, web orria eguneratzea premiazkoa dela aitortzen jarraitzen dugu. Ezkerraberri Fundazioaren aldizkariari maiztasun bat eman diogu eta ildo hori hobetu eta mantendu beharra aipatzen dugu. Egunerokotasuneko berrien bilduma egiten duen 'Begi Kolpez' deituriko aldizkari bat argitaratzen hasi gara. Albiste Boletinaren edizioa hobetzeaz gain, maiztasuna mantentzea eta hobetzeko ahaleginean jarraituko dugu.

Ezkerraberri Fundazioaren bidez izan dugun aktibitatea, bai kualitatiboki zein kuantitatiboki, garrantzitsua izan da.

Gainera, horri guztiari gehitu zaio Aralar barne mailan sortutako intraneta. Nafarroa mailakoa, zinegotzientzat, Euskal Herri osora zabaltzeko bokazioa duena. Horrez gain, EH Bildu mailan sortzen joan diren tresnak: aldizkaria, intranetak (udal mailakoa eta bestea Batzar Nagusi zein parlamentuetakoek osatzen dutena).

### 3.1.11.- Militantearentzako zuzeneko arretarako proposamena

Aralarrek zerbaitetan indar berezia jarri baldin badu barne mailari begira, alderdikideen eta sinpatizanteen parte hartzea sustatzean eta sakontzean izan da, nahiz eta beti dagoen non eta zer hobetu. Baina errekonozitu beharra dago barne mailan etengabeko informazioa emateko eta zabaltzeko ahalegin berezia egin



dela, bereziki bitarteko digitalak erabiliz. Horrekin batera, Aralarkide bakoitzari dagokion ahots eta bozka eskubidea erabiltzeko ere bide berriak jarri dira.

Hegoaldeko Batzarrak, zuzendaritzen arteko batzarrak, gai konkretuen inguruko batzarrak, batzar sektorialak eta informatiboak egin ditugu. Aldez aurretik bozka emateko araudia ere bideratu da.

Hala ere, gai berriei egokitzeko ahaleginean jarraitu behar dugu, militantzia aktibatzearekin batera, barne demokrazian sakontzeko eta bereziki gizarteri irekitzeko.

### **3.2. Hemendik aurrera etorkizuna**

3.2.1.- Aralarrek egin beharreko ekarpena ezkertiar, abertzale eta independentisten mugimenduaren egituraketari.

Aralarren erronka da bere ahalegina bideratzea, besteak beste, etorkizuneko ezker abertzaleari. Beraz, ezkertiar, abertzale, soberanista, ekologista, feminista, aurrerakoi eta independentistak batuko dituen mugimenduaren egituraketari. Engaiamenduaren baitan kokatzen diren EH Bildu eta EH Bai aitortzen ditugu ahalegin honetan urrats nagusi bezala.

Ezinbestekoa izango da egituraketaren bidea printzipio eta ildo ideologiko sendoetan eraikitzea, erritmoak eta abiadurak direnak direla. Barne demokrazia, parte hartzea, eta gardentasun irizpideen arabera jokatzuz.

Barne demokraziari dagokionean, aipaturiko mugimenduaren barne erabakietan alderdietako kideez gain, gertukoak diren herritarrentzat parte hartzeko bideak egikaritu behar dira, parte hartzea sendotzeko eta zabaltzeko, modu horretan, politikagintzari bere zentzurik irekiena eman ahal izateko.

Beraz, EH Bilduren eboluzioari ekarpenak egiten joatea funtsezkoa izango da Aralarrentzat, etorkizuneko ezker abertzale zibil eta zabala helburu. Ausardiaz jokatzeko, deitura zein bidean sor daitezkeen oztopoei beldurrik gabe. Eskuzabaltasunez eta urrutira begiratzuz.

Etorkizuneko ezker abertzale bateratu eta berriak Euskal Herriaren askatasun nazionala eta soziala izango ditu xedetzat, aldi berean. Euskal Herriko gehiengo aurrerakoiak bide eta leku bat aurkitu behar ditu ezker abertzale berri horretan; halaber, independentziarako bidea lideratzeko prestatu beharko da, herritarrek beren ordezkaritza maila ematen dioten heinean.

### 3.2.2.- Gernikako Akordioaren garapena

Gernikako Akordioa bake eta normalizazioa lortzeko ibilbide orri gisa hartuta, irabazle eta galtzailerik gabeko eta berdintasunean oinarrituko den bakea eta bizikidetzaren eraikitzearen hautua egiten du Aralarrek.

Gernikako Akordioan jasotako aldebakarrekotasuna da bidea. Madrilen eta Parisen jarrerak eta jokabideak ikusita, orain arteko bideari eutsi behar diogu. Ezin gara zain geratu. Bakea ez zaiolako inoiz herri honi oparitu, ezta oparitutako ere. Horregatik, euskal gizarteak aldebarrekotasunez urratsak ematen jarraitzea besterik ez du nahi, nazioarteko erakunde eta bitartekarien laguntza eta babesarekin, Aieteko konferentziak emandako ondorioen arabera.

Euskal erakundeek, bai Nafarroako eta EAeko gobernuek, babestu eta lagundu beharko lukete. Jaurlaritzak saiakera zehatzak egin dituela aitortu beharra dago, nahiz eta beti ez diren asegarriak gertatzen. Salatu behar da, ordea, Nafar gobernuak ez soilik ez duela ezer laguntzen, baizik eta bakegintzari oztupoak jarri dizkiola askotan. Bakegintzako bidea gizarteko erakunde, sindikatu eta eragile sozialekin elkarlanean eta eskutik egin behar dugu, giza eskubideak oinarri eta xede izanda. Bultzatzen dugun elkarbizitzako bideak ez du inolako beto eta salbuespeneko irizpiderik onartzen.

ETAk borroka armatua utzi eta armagabetzea gauzatu ondoren erakunde zibil bilakatu dela aitortu beharra dago.

Inork ezin du zalantzan jarri borroka armatuaren etena eta armagabetzea eginak daudela eta, ondorioz, orain bizikidetzaren aroa oinarritzeko garaia heldu zaigu. Agerian dago zeregin horretan ere Euskal Herriak ez duela Rajoyren gobernuaren partetik inolako ekarpenik itxaron behar. Beraz, bizikidetzaren arloan ere urratsak aldebakarrekotasunez ematen jarraitu beharko dugu.

Horregatik, behin puntu honetara iritsita, Aralarrek irmotasunez, inoiz baino gehiago ondorengo berrespenak aldarrikatzen ditu:

- Indarkeria oroko biktima guztien aitortza eta erreparazioa, inolako salbuespenik gabe eta berdintasunean.

- Presoen eta iheslarien gizarteratze osoa. Beharrezkoa da preso eta iheslari politikoen figurak eta egoerak berraztertu eta aldatzea. Salbuespeneko espetxe politika erro-errotik ezabatu; sakabanaketari premiaz amaiera eman eta preso gaixoak askatzea. Halaber, iheslariari eta preso politikoei etxera itzultzeko aterabideak bilatu.

- Egiaren eskubidea bermatzeko gertatutako guztiaren errelatoak askatasunean oinarritu behar direla baieztatzen dugu. Errelatoen aniztasunak berak biltzen duelako egia osoa.

- Amnistia ez da soilik hitz edo termino juridiko bat, baizik eta nazioartean errotuta dagoen bizikidetzarako oinarri eta osagarri behar beharrezkoa, gizartea baketze aldera. Horregatik funtsezkoa da, aldarrikatzeaz gain, borroka ideologikoa eta herritarren jabekuntza bideratzea amnistiaren garapenerako. Preso politikoen izatea baieztatzen dugu ez bakarrik presoetako batzuk beraien jardunean ez dutelako indarkeriarik erabili, baizik eta denek helburu politikoengatik jardun dutelako. Hori gutxi balitz, estatua bera da lehenengoa praktikan preso politikoen izaera aitortzen duena, legedi, epaitegi eta zigor bereziak ipintzen dizkien neurrian.

- Errelatoari buruzko eztabaida soilik askatasunetik gainditu daiteke. Historia ofizialik ez litekeen bezala demokrazian, errelato ofiziala ere ezinezkoa da. Zentzu horretan, egiari ezin zaizkio mugak ipini eta 1936ko gerran eta ondorengo diktaduran zapalduak izan ziren guztiekin eta beren sendiko eta ondorengoekin dago kitatu gabeko lehen zorra.

Aralarrek bere egiten ditu guztiz zilegiak diren justizia, egia, erreparazioa eta frankismoak Euskal Herrian egindako krimenak berriro ez errepikatzearen aldarrikapenak. Eta bide horretan, lan egiteko konpromisoa berresten dugu, garai horretako memoria historikoaren errekonstruzioa eta zabaltzea bultzatuz.

- Salbuespeneko legedi antiterrorista eta epaitegi bereziak, entzutegi nazionala zehazki, ezabatu egin behar dira, demokraziaren eta giza eskubideen aginduz.

- Tortura eta tratu txarrak posible egiten dituen inkomunikazioa ezabatu eta debekatu behar da. Pertsonen eskubideak urratzea dakarren indarkeria orori amaiera eman beharra dago. Zentzu horretan, tortura eta tratu txarrak posible egiten dituen inkomunikazioa ezabatu eta debekatzeaz gain, indar polizialak Euskal Herritik kanpora urruntzeko egitasmoari ekin beharko diogu, gure herrian kokatuak dituzten azpiegituren desmantelamendua aldarrikatuz. Horrela, beraien eskubideak urratuak izan dituzten pertsona guztiei dagokien duintasuna berreskuratuz.

3.2.3.- Euskal Herria burujabetza bidean. Autodeterminazioa edo Erabakitze Eskubidea eta Lurraldetasuna.

Euskal Herriak, herri den heinean, bere izaera eta etorkizun politikoa erabakitzeko eskubidea du. Euskal Herriko herritar bakoitzak eskubidea dugu, gainera, gure nortasun kolektiboa edo herritarra erabaki ahal izateko. Eskubide hau nortasunaren mailan kokatu behar da eta neurri horretan giza eskubidea da.

Nazioarteko hainbat adierazpenetan onartuta dago erabakitzeko eskubidea eta demokrazia erroturik dagoen herrialdeetan aintzat hartua izan da, eta Europa bera da adibiderik esanguratsuena arlo honetan, Europako Batasuna osatzen duten Estatu kide batzuk (7 estatu kide: Estonia, Letonia, Lituania, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Eslobenia, Kroazia) euren independentzia azken 25 urteetan lortu dute, autodeterminazio eskubidea egikaritzuz.

Erabaki eskubidea da, gainera, Euskal Herriak dituen eskubide historikoak gaurkotu ahal izateko modu demokratikoa. Eskubide historikoak denboran zehar herri bezala iraun duen gizartearen eskubide kolektiboak dira. Eta beraz, beren gaurkotze demokratikoa erabakiaren bitartez gizarteak soilik gauzatu egin lezake.

Egia da eskubide historikoak edo foruak askotan Euskal Herriaren osotasunean baino lurraldeka banatutako errealitate bezala azaltzen zaizkigula eta Estatuak erabili egin dituela lurraldetasunaren aurka. Zehazkiago, estatuak XIX. mendean foruak ezabatu nahi izan zituen gerraren bitartez; gero XX. mendeko hasieran foruen eskakizuna bereganatu eta estatutu aldarrikapenaren aurka erabili zituen; gero XX. mendeko bukaeran, estatutuen aldarrikapena bere eginik, erabaki eskubidearen aurka estatutuak erabiltzen ari da. Estatutuak gaur egun -bai Gernikako Estatutua nola Amejoramendua- zaharkituta daude. Ez dira hein handi batean bete, eta praktikan indargabetuta gelditu dira zentralismoaren eraso anitzen aurrean, Epaitegi Konstituzionalaren bitartez edo legedi zentralisten bitartez.

Beraz, erabakitzeko eskubidea arrazoi demokratikoengatik ez ezik, arrazoi sozialengatik eta ekonomikoengatik ezinbestekoa bilakatu da euskal izaera eta eskubideak defendatu ahal izateko.

Hala ere, euskal gizartearen aniztasuna arlo guztietan hain sakona eta agerikoa izanik, ezin da alde batera utzi erabaki eskubidea gauzatzeko orduan. Abertzaleon ustez, Euskal Herria da eskubide horrekiko nor dena edo subjektua; baina euskal gizartean hiru erabaki esparru daude historiaren, korrelazio politikoaren eta egituratze instituzionalaren ondorioz: Iparraldea, Nafarroa eta euskal autonomo erkidegoa.

Gizarteak guztiz bereganatuta dauka hiru esparru hauen errealitatea beren egunerokotasunari loturiko funtzionamenduan, eta horrek markatzen du ez bakarrik abiagunea, baizik eta baita abiadura aldaketaren garaia ere.

Abertzaleok, demokraziaren aginduz, onartu egin behar dugu lurraldetasun diakronikoa, jakinik eta kontuan izanda erabaki eskubidea hiru esparruetan gauzatuz erakundetuko dela Euskal Herria. Halaber, aldi berean eta eremu bakarrean egin nahi izateak berriz aitzakia emango lieke Estatuei beraien argudio nagusian. Erabaki eskubideak izan behar du, gainera, edozein aldaketarako zilegitasuna ekarriko duen bidea; adibidez, Nafarroaren eta EAEn arteko hurbilketa urratsak egiteko garaian.

EAE eta Nafarroako estatutuen berritze demokratikoak nahitaezkoa du erabakitze eskubidea jasotzea, bestela alferrikakoa izango delako edozein aldaketa zentralismoaren eraso bortitzen aurrean.

Era berean, EAeko eta Nafarroako itun eta hitzarmen ekonomikoak egokitu eta berritu behar diren garaian ezinbestekoa izango da bi erkidego hauen arteko esku hartzea, baldin eta euskal eskubide ekonomiko eta sozialak ongi zaindu nahi badira.

Salatu beharreko gezurra da zentralismoak behin eta berriro aipatzen duen aitzakia esanez erabakitze eskubidea gauzatzea ez dela demokratikoa. Nola ez da demokratikoa izango erreferendum bat orain Katalunian egitea, lehen estatutua onartzeko galdeketa egin zenean? Zentzugabea da, orain indarrean dagoen estatutua erreferendumean berretsia izan zenean. Izan ere, tripartitoan abiatu, eta Zapaterok eta Masek murriztu ondoren erreferendumean onartua gertatu zen, nahiz ondoren Epaitegi Konstituzionalak oraindik gehiago murriztu zuen. Are gehiago, Eskozian oraindik orain egin den independentzia erreferendumak argi utzi du erabakitze eskubidea oinarrizko eskubide demokratikoa dela baita Europa Mendebaldean ere. Eskubide hori munduko nazio guztiei zor zaie.

#### 3.2.4.- Sakontze Demokratikoa

- Askatasuna, Herritartasuna, naziotasuna

Azken urteotan, eskuineko alderdi atzerakoiak herritarren eskubide zibilen eta sozialen aurkako gurutzadan ari dira buru belarri, erreforma legalen bidea hartuta. Horren ondorioz, eskubideen murrizketa iraunkorrean murgilduta gaude, Espainiako estatuko Gobernu hilerok onartzen joan den erreforma desberdinen bidez.

Pertsonen arteko aukera berdintasunarekin eta giza duintasunarekin amaitzea besterik ez dute helburu. Eskubideak pribilegio balira bezala hartzen dituzte. Pobrezia hedatu eta zabaldu dute ikaragarri, klase ertaina ahuldu eta aberatsak aberatsago bihurtuz. Esan genezake PP alderdiaren gobernuak neokapitalismoaren zerbitzailerik onenetakoa izan dela.

Aldi berean, nabarmentzekoak dira Madrilgo gobernuak bideratutako erreforma ideologikoak: birzentralizatzailerak, espainolizatzailerak eta eskubide zibilen murriztzailerak.

Horrela, aipatu litezke eskubide zibilen murrizketak, eskubide politikoen murrizketak, eskubide laboralen eta sozialen murrizketak eta abar.

Murrizketak arlo guztietan eta aitzakia anitzekin egin dira; greba egiteko oztopoak, administrazioko bitartekoen gutxitzeak, atzeritarren eskubideak ezabatzea, osasun eta ikaskuntza eskubideak, justiziako sarbideak zailtzea, abortatzeko eskubide oztopatzea, mutualitateen legea eta abar; zerrenda oso luzea da eta eskubideen ikuspegi edo panorama legala zeharo aldatu dute.

Gauzak horrela, indar politiko aurrerakoien aldetik ezinbestekoa da kendutako eskubide zibil eta sozialen balantzea eta zerrenda egitea, eta guzti horren zaintza eta berreskurapena ez ezik hobetzeko bidea taxutzea. Guzti horri deitzen diogu herritartasunaren eskubide multzoa.

Aralarrek, orain arteko ildoari jarraiki, demokrazian sakontzen joatearekin batera, pertsonen arteko aukera berdintasuna eta eskubideak defendatu eta areagotzeko borroka egingo du. Ulertuta aukera berdintasuna dela, pertsona guztiek helburu berak lortzeko baliabideak izateko eskubidea.

Horregatik, ondorengo xedeak ideologikoki sendotzen ahaleginduko gara, irtenbide errealek lantzearekin batera:

Aralarren ustez, herritartasun eskubideak euskal konstituzioan egon beharko luketenez gero, Euskal estatutuetan jasotzen saiatu beharra daukagu, lehen urrats moduan. Estatutuen berrikuntzari ekin zitzaienez, adibidez 'Ibarretxe plana' deitutakoaren garaietan, estatutuetan bertan herritarren eskubideak ezartzeko xedea eta asmoa zegoen eta horrek, neurri handi batean, berma ditzake orain ere estatuko zentralismoak erasotzen dituenen.

Naziotasuna edo nazio bateko kide izatea etorkizuneko gizarteetan aukera litekeen nortasun izaera bilakatuko da. Euskal naziotasuna aukeratzeko eskubidea aitortzen diegu Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten guztiei ez ezik atzerrian bizi diren euskaldun sentitzen diren guztiei. Euskal naziotasuna aukeratzeko

dutenek Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzerakoan partaide izateko eskubidea behar dute.

Etorkizuna kultur anitzekoa izango dela gauza jakina da, eta euskal kulturak ez bakarrik Euskal Herrian baizik beste nazio eta herrialdeetan ere bere tokia eta garatzeko bidea bilatu behar ditu. Ziur gaude euskal kultura indartu egiten dela beste kulturen harremanarekin, berdintasunezko baldintzetan egiten bada harreman hori.

Euskal Herria emigratio herria izan da, eta azken urteotan etorkin jasotzailea bilakatu da; gure antzinakoak beste herrietan onartu zituzten neurri berean eta eskubide guztiakin onartu behar ditugu guregana datozen etorkinak.

- Feminismoa eta Aniztasuna

V. Biltzarrean onartutakoa berretsiz, eta kontuan izanez genero berdintasuna gizaki guztion, eta beraz, gizon eta emakumeon ardua dela, zera esaten dugu: gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun sistematikoari aurre egin behar zaio. Horretarako, paktu sozial berri bat sortu beharra dago, egungo gizartearen oinarri den marko patriarkala suntsitzea xede izango duena; baita gizartearen garapenaren oinarri diren esparruak eraldatzea (esparru soziala, politikoa, ekonomikoa, kulturala eta sinbolikoa) eta hiria eraikitzeke eta herritar gisa harremanak sortzeko modua aldatzea ere. Erakunde feministekin eta emakumeen erakundeekin etengabeko harremanetan jardutearen aldekoak gara.

Dibertsitate afektibo eta sexualari dagokionez, sistema legegile eta sozialak kontuan hartu behar du herritarron askatasun afektiboa eta sexuala. Halaber, oinordetzarako eskubidea ere bermatu behar du, besteak beste, alarguntza pentsioei, adopzioari eta sexu berresleipenari dagokionez.

Gainera, kontuan hartuz gaur egun gizarteko mahai gainean dauden arazo eta eztabaida nagusiak, ondorengo gogoetak eransten ditugu:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta ekitate egoerak lortzeko borrokan, eta beraz emakumeen askatasun eta burujabetza prozesuaren gauzapenean, biolentzia ugari azaleratzen da, eta biolentzia matxista da gaur egun dugun genero terrorismo nabarietakoa. Emakumeen gaineko kontrolaren galerak, eta kontrol horri eutsi nahiak biolentzia matxista sostengatzea dakar. Aralarren argi dugu biolentzia matxistaren estadio oro, biolentzia psikikoa, ekonomikoa, juridikoa, kulturala zein fisiko eta sexuala, arbuigarriak direla eta emakumeen kontrako terrorismo iraunkorrena izaten ari den honetan, horri aurre egiteko modu bakarra gizarte heteropatriarkala errotik aldatzetik etorriko dela.

Emakumeen gorputzaren gaineko erabakia, emakumei eta ez beste inori dagokie. Ernaltzeko erabakian eta emakumeen umetokian, ordea, erabaki nahi izan dute hainbat alderdi, eliza eta sektore baztertzaileenek, eta horrela, abortatzeko eskubidea mugatu, baldintzatu edota zuzenean ukatu nahi izan da. Aralarren argi dugu soilik emakumei dagokiela haien gorputzaren gaineko edozein erabaki hartzea, eta horregatik abortatzeko eskubidea doakoa, libre eta inolako baldintzarik gabekoa behar duela izan diogu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren bidean urrats ugari dago emateko, eta zaintzaren lanak badu gaurko egunean zer aurreratu aski. Dependentsia mailaren bat duten pertsona helduen zaintza lanek emakume eta gizonen artean partekatuak izan behar duten moduan, bikote batean umeak daudenean (bikotean ernalduak, ernalketa transferitua edota adopzioa izan dela bidea), horiekiko zaintza lanak partekatuak behar dira izan umea bikotera etortzen den une beretik.

- Euskal Herria inklusiboaren alde. Arrazakeria, xenofobia, faxismoa eta intolerantziaren aurka borroka dezagun.

Euskal gizartea gero eta anitzagoa eta irekiagoa da. Aralarrek inklusioaren, giza eta kultur aniztasunaren alde egiten du. Pertsonak lan tresna soila hartzen eta kulturen homogeneousazioa bilatzen dutenen aurrean kokatzen gara. Horregatik, arrazakeria, xenofobia edo eta beste edozein argudio erabiltzen duten - ekonomikoak, sozialak, politikoak, jatorria, esaterako- mespretxu, bazterketa adierazpenei kontrakotasun irmoa adierazten diegu. Pertsonen, kulturen arteko berdintasuna dugu helburu.

Ezari diren austeritate politikak eskuin muturraren igoera erraztu dute hainbat eta hainbat herrialdetan; non sektore konkretuetara bideratutako mezuek - etorkinei, homosexualei edo eta aniztasun funtzionala dutenei, esaterako- mediatikoki protagonismoa hartu duten.

Aralar, ezkerreko erakundea den aldetik, demokrazia, justizia eta eraldaketa sozialarekin konprometitua, berresten du lanean jarraituko duela instituzio, kale zein eremu guztietan diskurtso zein jokabide baztertzaile, arrazista, xenofobo eta intoleranteen aurkako borrokan.

- Gazteria



Kezkaz bizi dugu gazteriaren gaur eguneko egoera, beraiek baitira biharko gizartearen euskarri eta etorkizuna. Prekarietatearen unibertsalizazio eta eskubide zibil, laboral, sozial, kultural zein linguistikoek zapalkuntza bereziki gure gazteen eskubideak kolpatzen ari dira. Eraldaketa soziala bilatzen dugunoi inoiz baino beharrezkoagoa zaigu gazteekin elkarrizketa eta elkarlana bilatzea. Akordioak eta elkar hartzeak gero eta beharrezkoagoak dira gizarte juxtu eta solidarioagoa lortzeko. Horrela, biharko Euskal Herria independente, sozialista eta feminista eraiki dezagun. Aralarren aburuz, behar beharrezkoa da politikagintzako esparru desberdinetan (erakundeetan, borroka ideologikoan, masa borroketan) gizarteko gazteenak aintzat hartzeaz gain, berauen parte hartzea, inplikazioa eta protagonismoa sustatzea. Politikagintzaren balio positiboak indartuz eta pertsonen zerbitzura egongo den tresna bilakaturik. Gazteak politikan egon daitezen, politikak tokia egin behar die gazteei.

#### - Gardentasuna

Aralarrek adierazten du gardentasuna egiazko demokraziaren osagarri beharrezkoa dela. Hori dela eta, lan esparru guztietan herritarren parte hartzea eta atxikimendua ahaldundutzea sustatzeko bideak eta neurriak garatzen ahaleginduko gara. Horretarako, besteak beste, jarraipen eta kontrol sistemak sustatuko ditugu; informazioa elkar trukatzeko kanalak; parte hartzeko espazioak eraiki eta erraztu; sistema publikoa eta instituzioak herritarrei irekitzeko eta herritarren zerbitzura jartzeko bitartekoak ahalbidetzen saiatuko gara.

Ustelkeriaren kasuen drama politiko eta sozialaren aurrean, Aralarrek aldarrikatzen du gardentasun guztia eta zero tolerantzia. Kudeaketa publikoaren austeritate, gardentasun eta informazioarekikoa.

Beti ere, gardentasuna ez da soilik kudeaketa publikoaren argibideak ematea. Erabakietan herritarrek partaidetza izan dezaten ateak irekitzea eta kudeaketan herritarren kritikak eta irizpideak kontuan hartzeko moduak sustatzea ere bada.

#### - Demokrazia esku hartzailea, Auzolana eta Kogestioa

Konpromiso kolektiboa eta auzolanaren garrantzia herri eta auzoetan balorean jartzea eta sustatzea dugu helburu. Norbanakoaren askatasuna eta konpromiso kolektiboa uztartzea dugu xedetzat. Gaur egungo indibidualismo eta kontsumismoaren gainetik.

Aralarrek kogestio eta auzolanerako formula desberdinak sustatzeko konpromisoa hartzen du ondasun eta zerbitzu publikoak kudeatzeko, helburu bikoitza begi bistan izanik: kudeaketa bera demokratizatzea eta, aldi berean, aipatutako zerbitzu eta ondasunetan kontrol publikoaren bideak mantendu eta indartzea.

Aralarrek demokrazia parte hartzailea defendatzen eta sustatzen du. Defendatzen dugun democracia ordezkatzaillearen nahitaezko osagarri gisa.

### 3.2.5.- Iraultza Soziala

Aralarren ustez, euskal gizarteak ez du etsi behar neokapitalismoak eta bere aginduz Madrilgo gobernuak ezarritako legeek egindako murrizketa guztien aurrean. Beste herrietako indar politikoek bezala jokatu behar dugu pobrezia zabaltzearen eta desberdintasun sozialaren aurka, klase ertaina ahultzearen aurka eta aberatsenak gehiago aberastearen aurka. Etenik gabe errekupeazioaren gezurrak zabaltzen ari dira, krisia gaingitzen ariko bagina bezala. Eta hori helburu bakarrarekin egiten dute: normaltzat jotzea herritarren pobretzea eta eskubideen murriztea.

Aralarrek Iraultza Soziala aldarrikatzen du. Iraultza sozial horrek bere oinarri ideologikoak eta bitartekoak sustatu behar ditu. Sindikatuekin eta eragileekin elkarlana bilatu behar da, bitartekoa garatu ahal izateko. Justizia soziala xede dugula, tokian tokiko garapena sustatuz, ingurumena errespetatuz eta pertsona helburu dela eraikiko da Iraultza Soziala.

Politika publikoen xedea gizarte kohesioa lortzea da. Eta horretan datza Iraultza Sozialak. Bazterketa egoerak ekiditeko enplegu politika integralak bideratzea iraultza soziala da; enpleguarekin batera, etxeko eta zaintza lanak banatzea Iraultza Soziala den bezala. Lan baldintza duinak eta etxebizitza eskubidea bermatzea, irizpide nagusitzat hartzea Iraultza Soziala da. Horregatik beharrezkoa da botere publikoak eskuhartzea etxebizitzaren merkatuan, erregularizatuz herritarren eskubideak gutxiezen dituzten mugagabeko aberastea. Horregatik etxebizitzaren eskubidea bermatua izan behar da. Pertsona nagusi, mendekotasuna dutenentzat eta gazteentzat etxebizitza finantzatzeko neurriak bideratuz. Oinarrizko errenta unibertsala eta duina sustatzea Iraultza Soziala da. Herri zorrerako ikuskaritza sustatzea Iraultza Soziala da. Demokrazia parte hartzailea eraikitzea Iraultza Soziala da. Pobreziaren zabalkunde kezkarriari atek ixtea Iraultza Soziala da. Horretarako, aberastasunaren birbanaketan sakonduko duen zerga politika progresiboa eta ekologikoa garatuz eta bakoitzaren ondasun eta irabazien arabera zerga ekarpena ezarri. Osasun, hezkuntza eta gizarte politiken estaldura soziala herritar guztiei sistema publikoaren bidez bermatzea beti garrantzitsua izan bada, are gehiago krisi egoera larri honetan.

- Etorkizuna ekosozialista izan beharko da:

Aralarrek bere izaera ekosozialista berresten du, bai eta kapitalismoaren garapen suntsitzaile eta ekozidaren aurrean alternatiba erradikala eskaintzeko konpromisoa ere. Alternatiba hori sozialista izango da ezinbestean, eta printzipio ekologikoetan oinarrituko da.

- Sozialista, demokraziarekin, berdintasunarekin zein justizia sozialarekin konprometituta. Halaber, aktiboa izango da bai langile klasearen esplotazioaren desagertzean zein naturak ere jasaten duen esplotazioan, plusbalia merkantilista hutsa bilatzen duena eta ekonomiaren motortzat pilaketa besterik jotzen ez duena.

- Printzipio ekologikoetan oinarrituta: ingurumenerako kaltegarriak diren praktikak ezabatzeari, kaltetutako ekosistemen berritzeari eta nekazaritza zein industria irizpide ekologiko iraunkorretan berreraikitzeari lehentasuna emanaz, izan ere, Euskal Herriaren “aztarna ekologikoa hiru halakoa da”.

Batasun banaezin batean elkartu behar ditugu hiru ekologiak: “Ingurumen ekologia, gizarte ekologia eta ekologia mentala”. Inoizko hondamendirik okerrrena ekidin nahi badugu, sakon aldatu behar ditugu gure gizarte jokabideak: gizabanakoak orekan egon behar du subjektibotasun mailan, gizakien arteko harremanek orekatuak izan behar dute, eta gizarteak orekan egon behar du Ama Lur planetaren gainerako bitartekoekin.

Ez aldatzea ez da aukera, gaur egun. Puntu horretara iritsi gara. Nahitanahiez, 20 urte barru izango dugun munduak gaurkoarekin alderatuta zerikusirik ez baitu izango. Elkar gurutzatuta dauden krisiak ditugu aurrez aurre, kolapso ekosozialaren mehatxua erreal egiten duen krisi sistemikoa. Kontua ez da aldatzea ala ez aldatzea, baizik eta nahita aldatzea ala derrigorrez aldatzea.

Egoera honen aurrean, arazo ekologikoa erdigunean eta maila estrategikoan hartzen ez duen ezkerreko edozein erakundek, edota merkatuaren mekanismoak zein munduko ekonomia gobernatzen duen pilaketa sistema eten gabe kalte ekologikoak gelditu eta konpondu nahi dituen edozein erakunde ekologistak edo gizateriak dituen arazoen aurrean logika zaharkitua eta dogmatikoan trabatuta dago edo, bestela, kapitalismoaren beraren funtzionamendu, arau eta interesek irentsia izan da. Gaur egun, ezinezkoa da ematzipazio sozialari heltzea ikuspegi ekologikorik gabe; modu berean, alferrik da krisi ekologikoari aurre egin nahi izatea ikuspegi antikapitalistarik gabe, hots, ikuspegi sozialistarik gabe.

Krisi sozial eta ekologikoak elkarrekin lotuta daude eta egiturazko indar berberen manifestazio gisa ikusi behar dira. Krisi ekologikoak, oro har, mugarik gabeko industrializazioaren ondorio dira, sortutako hondakinak bereganatzeko eta birgaitzeko lurak duen gaitasuna gainditzen duelarik. Krisi sozialak globalizazioa

izenez ezagutzen den kontzeptutik eratortzen dira, erresistentzia erakusten dioten gizarteetan eragin suntsitzaile duena.

Horregatik Aralarrek ingurumena zeharkako goi politikako gaitzat jotzen du. Beste ekimen eta erabaki politiko guztiek aintzat hartu eta errespetatu dezaten. Gizarteratzen saiatuko gara ingurumena kaltetzea, hurrengo belaunaldiei utziko diegun ondare naturalean murrizketak egitea dela, gaur egungo belaunaldien bizi baldintzetan eta osasun egoeran kalte larriak egiteaz gainera. Garapen ekonomiko eta bestelakoetan ingurumenak eragina daukanean lehenengo irizpide nagusi bezala ingurumenaren babesa aitortu behar da.

Muga fisikoak duen ama lurlean ezinezkoa da mugagabeko hazkunde eredu bat etengabe garatzea. Eredu horren aztarna ekologikoa jasan ezinezkoa da; beraz, gaur egun politika ekologiko eraginkorrena mugagabeko hazkunde ereduarekin haustea da. Ingurua eta giroa etengabe kaltetzen ari gara, erregai fosiletan oinarritzen den eredu energetikoa errotik aldatzen joan behar gara, kontsumo energetiko jaitsiz eta energi iturri berriztagarrietan oinarrituz. Premiazkoa da iraganeko eredu bidegabe eta suntsitzailean murgiltzen gaituzten azpiegiturak alboratzea. Kasu, Castejongo ziklo konbinatuko zentrala, oroakoa, Garoñako zentral nuklearra, hondakinen errauste planta; zein gasa lortzeko fracking deituriko sistema. Eta zer esan eredu horrek gure ama lurlean utzitako zauri sendaezinaren inguruan. Esan dugun bezala, kaltea sendaezina da, baina ez dezagun areagotu. Horretarako, ezinbestekoa zaigu lehenengo eta behin ingurumena zer den finkatzea. Mugagabeko hazkunde ekonomiko elikatze beharrezkoak diren jarduera ekonomikoek behar duten inguru fisikoa? Edota, guk disfrutatu eta hurrengo belaunaldi utzi behar diegun ondarea? Aralarren argi daukagu bigarrena dela aukera jasangarri bakarra.

Ingurumena babesteak ekonomia indartzen duela eta lanpostuak sortzen dituela gizarteratu behar dugu. Ekologia ez doa aurrerapenaren kontra, ekologiak ere garapena ekar lezake. Deshazkundera ez da inoluzio bat, baizik eta berinbertsio bat.

Hortik abiatuta, lurralde antolaketaren inguruko hausnarketa ezinbestekoa da. Hego Euskal Herrian, urtetan zehar oso ondo planifikatutako lurralde desantolaketa eredu bat bultzatu da. Mugagabeko hazkunde ekonomikoan oinarrituta. Hiriak (poloak kasu honetan) indartuz, hirien arteko konexioak eta lehiakortasun probintzianoa sustatuz, barruko eskualdeen kalterako eta horrek ekarri dituen ondorio sozial eta ambientalekin, noski.

Ezinbestekoa da gelditzea eta hausnartzea. Alegia, gaur egungo lurralde antolaketa eredu horrek ekarri dituen ondorioen diagnostiko sakon bat egiteko

eta, horren ondoren, dinamika parte hartzailea abiatu eta lurralde antolaketako planifikazio ahalik eta adostuena abian jartzeko. Tokiko garapena sustatuko duen lurraldeen arteko eredu orekatua helburua izanik. Elikadura burujabetza, deshazkundera, autokontsumo elektriko banandua ... momentu konkretuko esloganak izatetik errealitate bihurtu behar ditugu, teorian eta praktikan. Apustu partikularra izan daitekeena apustu politiko kolektibo bihurtuz.

Bide horretan, burujabetza eta ingurumenaren errespetua, funtsezko terminoak dira.

Burujabetza: Eztabaidan politikoan kokatuta dagoen ideia, ingurumenarekin zerikusia duten esparrutara eramane beharrekoa ere. Elikadura burujabetza adibidez; Herri guztien euren elikadura politika diseinatzeko duten eskubidea, autohornikuntzatik haratago doan ideia. Elikagaien ekoizpenean ama lurraren prozesu naturalak errespetatzea (ekoizpen ekologikoa) eta lanpostu zein errenta duinak bermatu beharra barneratzen du elikadura burujabetzak. Termino berdinetan mintzatu behar gara, burujabetza energetikoaz ari garenean, energia ekoizpena ekosistemarekin errespetuzkoa izanik. Gaur egun, Espainiako estatuak erregai fosiletan oinarrituta eta lobby gutxi batzuen eskuetan ezarri duen ereduarekin apurtu behar dugu. Horretarako, energia berriztagarriak ezinbestekoak dira; baina kontuz, hainbat adibide daukagu zeinetan energia berriztagarriak ez diren ez alternatiboak ezta berdeak izan. Horregatik, gure eredu energetikoa diseinatzerako orduan, herritarren erabaki ahalmena eta kontrola ezinbestekoak izango dira.

Illo berean ezin dugu ahortzi eta funtsezkoa da hondakinen kudeaketan gure errealitate eta gizarteari egokitutako erabakiak hartzea, zeinak ingurumena kontutan hartzeaz gain, eredu energetikoa eta pertsonen osasuna ere kontutan hartuko duen. Izan ere hondakinen arazoa geroz eta larriagoa izateaz gain, denon arazoa da. Eta liskar eta kolore politikoaren gainetik kokatu beharko genuke, guztion hobe beharrez. Zentzu horretan, hondakinen kudeaketaren inguruan bereziki Gipuzkoan izan dugun ibilbideak agerian utzi du alternatibarik bideragarri eta eraginkorrena atez ateko sistema dela. Eta Gipuzkoatik haratago ere, makina bat herrialde izan dira atez atekoaren aldeko hautua egin dutenak, errausketari atek itxiz. Guzti hori kontutan izanez, Aralarrek Euskal Herriko gainerako herrialde, eskualde eta herrietan errausketa behin betiko baztertzeko, atez ateko sistema lehenetsiko du, beti ere hondakinen kudeaketan, energiaren kontsumorik baxuena, berziklapen handiena eta kutsadura maila baxuena ahalbidetzea xede izanda eta herritarrekin adostasunak bilatuz, hondakinen kudeaketarako sistema ezartzerako orduan.

### 3.2.6.- Ireki Bidea Independentziari

Euskal independentismoak estrategia ausartagoa eta zehatzagoa behar du, bai erabakitze eskubidearen gauzatzeari eta bai lurraldetasunari dagokionez.

Etorkizuneko Euskal Herri independenteak egitura administratibo malguagoak eta zerbitzu publiko gardenagoak behar ditu. Baina, batez ere, finantza egituran edo kulturalean nola nazio ezaugarrietan erakustegia argitu beharra dauka.

Euskal Herriarentzat nahi dugun estatu independenteak helburu nagusiak izan behar ditu. Beti ere estrategia independentistak ez ditu helburu eta xede guztiak independentzia ondorengorako uzten, baizik eta estatu bezala jokatzeko erronka dauka norbanakoaren eskubideetan oinarrituta; hala nola, ikur, kirol, hizkuntza, kultura eta beste hainbeste arloetan, ekonomikoak eta estrategikoak.

Zentzu horretan, Euskal Herriko independentzia prozesuaren inguruan hausnarketa sakona egiteaz gain, prozesua sustatu eta garatzeko ardura nagusia izan beharko du. Beti ere, gizarteari izan behar duen gidaritza eta aitzindaritza aitortuz. Izan ere, gizartea izango baita prozesuaren arrakastaren berme bakarra.

Halaber, Euskal Herriko independentziaren prozesuaren hausnarketak ezinbestean, xede horretara iristeko bitartekoen eta bideen inguruan adostasun eta indar metaketa zabalenak bilatzearen ardurari erantzuteaz gain, gaur egun Euskal Herriko subjeto politikoak bere baitan batzen dituen errealitate administratibo, juridikoetatik abiatu eta hauetara egokitu beharko da; alegia ezinbestean Iparraldea, Nafarroa eta EAEko gizarte, erakunde, akordio sozial - politiko eta erritmoak kontutan izan beharko ditu. Eskubide historiko, estatutu, eta erabakitze eskubidearen eztabaidak gaindituz. Iparraldeak erabaki beharko du, zein harreman mota nahi dituen Hego Euskal Herriarekin; Hego Euskal Herrian, Nafarroak erabaki beharko duen bezala zein harreman mota nahi dituen Erkidegoarekin eta alderantziz.

Euskal Herriaren lurralde guztiak, hots, bere hiru erabakitze esparruak, barruti administratibo bakar batean biltzen diren arte, Europako Batasuneko legediak eskaintzen dituen baliabideak usa daitezke esparru desberdinen arteko elkarlana indartzeko, gure herria nazio moduan agertzeko munduan eta gure herria kohesionatzeko. Euskal euroeskualdea sortzea izan daiteke hori egiteko modua, nahiz eta aipatu legedi horren bidez beste figura batzuk ere egon daitezkeen helburu horiek lortzeko.

Baina independentziaren lorpena ez da bukatzen harreman motak erabakitzearekin, baizik eta Euskal Herriak esparru guztietan bere burujabetasuna aldarrikatzearekin baino. Euskal herritar orori edozein esparruetako erabakiak hartzeko dagokion eskubidea egikaritzuz. Burujabetasun ekonomiko, energetiko

zein gainerako eremuetakoa. Subirautza, munduko gainerako herrien arteko elkartasun eta lankidetzaren harremanetan oinarrituta.

Horregatik, lantzen hasi beharra daukagu behin Euskal Herria independentea aldarrikatzea lortzen dugunetik aurrera beharko dugun ibilbide orria eta bitartekoak; gure herria estatu ekosozialista egituratzeko.

### 3.2.7.- Desobedientzia zibila

Mundu guztian eta Euskal Herrian desobedientzia zibilak bidaia luzea eta sakona egingo dira. Euskal desobedientzia zibilaren historian daude, besteak beste, intsumisioen borroka guztiak. Hauek eta beste asko aitortu beharreko aurrekari eta eredu esanguratsuak dira.

Zalantzarik gabe, desobedientzia zibila politikagintzako eredu garrantzitsuenetakoa da. Alde batetik, lotura zuzenak dauzka demokrazia esku hartzailearekin. Beste aldetik, erresistentziako edota kontrabotereko politikagintza mota guztiekin. Eta bereziki masa borroka diren kaleko adierazpen mota guztiekin. Beraz, estaturik ez daukan herri bateko erantzun politikoetan ardatza izan behar du, eta bide horretan asko dugu egiteko. Are gehiago aldaketa soziala bilatzen duten indar politikoentzat.

Horregatik, Aralar alderdiarentzat, desobedientzia zibila erreferentzia ideologikoa da, eta eraginkortasunez erabiltzeko tresna. Kontestazioaren ikur eta tresna bilakatu beharko genuke gure artean.

Ezker abertzale osoak bere egin du desobedientzia zibilaren bitartekoa eraldaketa sozial eta politikorako. Eta hori apenas ikusten ez den aberastasun bat da.

Desobedientzia zibila ez da berez helburua, baizik tresna bat baino gehiago da. Eboluzio sozialera lanketan ideiak eta praktika sozialak errotzeko bermea da. Desobedientzia zibilaren estrategiak behartzen du eragile politikoak bere egiteko eta erronka politikoak eraikitzeko jokabideetan erroko aldaketa bideratzea. Eta horretaz gain aldaketa kulturalerako gain esfortzu batetara behartzen du. Hori dela eta, eguneroko nazio eraikuntzan eta borroka sozial nola politikoetan balio ezinbestekoa duen tresna da: borroka zibiletan (eskubide zibilak, hizkuntz eskubideak eta abar), borroka sozialetan (ingurumena, zerbitzu publikoak eta abar) eta borroka politikoetan (adibidez, herriz-herriko bozketak eta abar) oinarriak finkatzeko beharrezkoa da.

Aralarrek konpromezua hartzen du herritarren bitartekoa den desobedientzia zibilaren estrategia garatu eta sakontzeko. Inteligentziaz eta malgutasunez erabiliz ondorioei aurre egiteko. Halaber, ulertzen dugu desobedientzia eta

erresistentzia zibila bateragarriak eta osagarriak direla borroka instituzionalarekin. Izan ere borroka baketsu eta zibil guztiak beharrezkoak baitira eta beraien funtzioa betetzen baidute eraldaketa soziala lortzeko bidean.

Aralarrek ulertzen du desobedientzia zibila egikaritu beharko litzatekela lege eta erabaki bidegabeak ikustarazteko; zeintzuk beste borroka eredu batzuen bidez ikustaraztea ez den lortu eta gizarteak zilegitasuna kendu eta berauen indargabetzea lor dezan.

### 3.2.8.- Borroka soziala: masa borrokak

Aralarrek aldarrikatzen du gizarte kohesionatu eta inklusiboa eraikitzeko behar beharrezkoa dela borroka ideologikoa, eta hori gizarteratzeko, besteak beste, bitartekoa den masa borroka.

Kalean egiten diren adierazpenak, manifestaldiak, agerraldiak, eserialdiak edo era baketsuaren bidez mota guztietako jardunak gizarteari heltzen zaizkio eta berezko adierazpen garrantzitsuak dira. Masa borrokaren garrantzia ez da gutxitu komunikabideen eraginarekin baizik agian handitu.

Ezker abertzale osoak beti garrantzi berezia eman dio kaleko agerraldi mota orori eta, zentzu horretan, Aralarrek erabili daitezkeen bide eta tresna desberdinak sustatu eta ahalbidetuko ditu, eskubide zibil, politiko eta sozialak oinarri hartuta, adierazpen askatasunaren bidez.

Garai bakoitzak borroka bide desberdinak exijitzen dizkigu, eta saiatu beharko gara, gaur eguneko ahulgune eta indarguneak kontutan izanda, ahalik eta borroka bide egoki eta eraginkorrenak lantzen eta elkarlanean gainerako ezkerreko, abertzale, ekologista, soberanista eta indar independentistekin kasuan kasuko garatzen.

Inork uste eta aurreikusi ez zuenean, herrialde arabiarretan eta munduko hainbat tokitan eta komunikabide berrien bitartez sortutako mugimendu herrikoi zabalek erakusten dute hemendik aurrera kaleko masa mugimenduen ahalmena izugarri has daitekeela eta eztanda egin lezakeela modurik harrigarrienean. Antzeko egoera bizitzen ari gara Katalunian non independentziarako borroka gizartearen mobilizazio izugarrian oinarritzen ari den. Zalantzarik gabe, aldaketa sakon guztiek beren ikur eta frogatzat kaleko adierazpenak dituzte, eta hori bera gertatzen da Euskal Herriko aldarrikapen nagusiekin.



### 3.2.9.- Euskal Herriko egituraketa instituzionala

Euskal Herriaren egituraketa eta kohesioa lortzeko, euskal gizarteari bitarteko garrantzitsuak eskaini eta garatzea funtsezkoa da. Eta gainera herritarrei helarazi behar zaie Euskal Herriaren erakundetzeak mesede ekonomiko, sozial eta kulturalak ekarriko dizkiela. Adibidez, kontzertu eta hitzarmen ekonomikoa beti elkarturik erasotzen dituzte eta soilik elkar hartuta defenda litezkeela helarazi behar zaio herritargoari. Edo garapen ekonomikoa eta ikerkuntza edo hezkuntza askoz ere eraginkorragoak liratekeela harremanak dituen Euskal Herri batean bizkar emanda bizi den oraingo autonomien artean baino.

#### a) Finantza eta garapen ekonomi errealerako kutxa publikoa

Aralarrek aldarrikatzen du Euskal Herriak bere garapen ekonomiko sozialerako kontrol publiko eta soziala bermatua izango duen finantza eta garapen ekonomikorako banku publiko bat behar duela. Besteak beste, etxebizitza eskubidea bermatua izan dadin; enpresa txiki, ertain, autonomo eta norbanakoei zuzendutako politikak bideratzeko; erakunde publikoekin sistema publikoa egituratzeko elkarlanean aritzeko; ondare kulturalaren zainketan bidelagun izateko.

Nafarroako eta EAEko kutxak galduta, CAN dagoeneko salduta; eta Kutxa, Vital eta BBK Kutxabank bilakaturik eta pribatizazio prozesuan murgilduta, Euskal Herria kutxa publikorik gabe geratzeko zorian dago. Dagoeneko PSE-EE, EAJ eta PPren eskutik euskal gizarteak zeukan garapen ekonomiko eta sozialerako bitarteko garrantzitsuena galtzar dago. Beharrezkoa da pribatizazioari buelta ematea, eta horretarako indar korrelazio aldaketa sustatu behar da. Oraindik orain bestelako bideak jorratuz eta pribatizazioa ekidinez kontrol publikoa duen finantza entitatea mantenduko balitz, Euskal Herriak kutxa publikoa izango luke Kutxabank delakoa.

EAEk eta Nafarroak elkarlanean garatu behar lukete Kutxabanken garapen publikoa, garai batean izandako elkartzeari galdutzat eman behar denez gero.

Baina gure aldarria ezin da geratu soilik Euskal Herrirako banku publiko bat eskatzean. Hori ezinbesteko pauso bat litzateke egungo egoeran nabarmenki aurrera egin ahal izateko. Baina ikuspegi eraldatzaile eta ekosozialista batetik haratago joan beharko ginateke. Gure xedea gizarte justu eta jasangarri bat baldin bada, ekonomia finantzen menpekotasunetik askatu egin behar da.

Ekonomia justizia eta jasangarritasunerantz bideratu ahal izateko, inbertsio kontrol sozialaren menpe egon behar da. Horregatik, banku publiko (bakar) bat

izatea beharrezkoa dugu, baina baita banka sistemaren kontrol publikoa areagotzea ere.

#### b) Ikerkuntza Publikoa

Ezagutza publikoan eta bitarteko publikoetan oinarritutako ikerkuntza zientifikoak garapen publikoa izan dezala defendatzen dugu. Besteak beste, gizarte osoari dagozkion berrikuntzetan; adibidez, sendakuntzako aurrerapenetan, eta bereziki diru publikoarekin egiten baldin badira, ez dadin mugarik egon bere erabilpenean dirua duten eta ez dutenen artean.

Ikerkuntza translazionala eta praktikoa eragile sozial eta ekonomikoekin elkarlanean garatu beharrezkoa da, besteak beste, ikerkuntza + berrikuntza + garapena bermatzearen aldeko hautua egiten dugu.

#### c) Hezkuntza sistema / Lanbide Heziketa eta Euskal Unibertsitatea

Aralarrek adierazten du ez dagoela estaturik, eta ezin dugula estatu ekosozialistarik eraiki hezkuntza sistema publiko askerik gabe. Komunitate baten, oinarri oinarrizko zutabea izan behar baita hezkuntza sistema, zeinak herritar guztiei sarbidea eskainiko diona. Beraz, herritar ororen eskubide indibidual zein kolektiboa izaki, norbanakoari bere bizitza proiektua eraikitzen laguntzeko eta kolektibo gisa, Euskal Herriaren garapenaren zerbitzuan egongo den hezkuntza sistema propio publikoa eraikitzea izango dugu helburu. Eraldaketa soziala eta burujabetza sustatzen lagunduko duten herri, eskualde, lurralde justu eta solidarioagoak eraikitzeko, pertsona euskaldun, aske, autonomo, sortzaile, kritikiko eta ekintzaileak formatuko duena. Herriak ikastetxeetatik haratagoko hezkuntza komunitateak bilakaturik.

Bizitza osoan zehar hezkuntza formal (etapa guzti eta desberdinetan) zein ez formalera sarbidea bermatuko duena, baliabide, giza baliabide eta azpiegitura duinak eta egokiekin.

Halaber, Estatua izan nahi duen nazio batentzat eta euskal herritarren onurarako, funtsezkoa da euskal unibertsitate publiko, sendo eta euskalduna izatea. Ezagutza sortu eta gizartearen eskuetan jarriko duena. Gizartearen garapenean funtsezko tresna izan behar dena, gizartearen interes orokorrak garatuz eta ikerkuntza zientifikoaren aterpe izanez. Euskal Herriko unibertsitate publikoek euskarazko eskaintza osoa eman dezaten lortu egin behar da, bai gradu ikasketetan baita gradu ondokoetan ere.

#### d) EITB

Aralarren ustez, EITB estrategikoa da Euskal Herriaren eraikuntzarako, euskal kulturaren eta euskal gizarte kohesionatua eraikitzeko. Testuinguru honetan, Aralarrek nabarmendu nahi du komunikabide publiko bat izatearen garrantzia, zeinek informazio eskubidea, kalitatezko kultur, hezkuntza eta entretenimenturako sarbidea bermatuko duena. Merkatu ekonomikoarekiko independentziaz jokatu duena. Eta zentzu horretan, aipaturiko xederako Aralarrek EITB funtsezko bitartekotzat jotzen du.

Horregatik, EITB kalitatezko proiektu erakargarri bilakatu behar dugu. Garrantzi berezia emanez haur eta gazteei, beraiek baitira etorkizuna. Funtsezkoa da euskal gizarte osoari begirako proiektu interesgarri eta erakargarriak sortzea. Aldi berean, balio kritiko, sortzaile, eta berezkoak, nola beste herrietatik jasoak, aniztasunean hedatuko dituen.

EITB Euskal Herri osora bideratua eta irekia egon behar da, bere programazio, parte hartze eta edukietan, Nafarroa, Iparraldea eta EAE bere osotasunean barnebilduz.

EITBk euskalduntzearen arloan egin beharko luke ahalegin berezia, beste hizkuntzen garapena maiz hedabideen bitartez sustatzen dela ikusita.

EITB izanik gure herriko komunikazio talderik handiena eta izaera publikoa duena, ikus entzunezkoen alorrean traktore lana egin dezake. Sektore horretako agenteekin elkarlanean aritzeak —ekoizleekin, bikoizketa etxeekin, tokiko ikus entzunezko komunikabideekin eta enparauekin— onerako baino ezin du izan. Bide horretan euskal herritarrek EITBn inbertitzen dituen baliabide ekonomikoaren etekina haziko litzateke, dudarik gabe.

#### e) Osasun Sistema Publikoa

Osasuna, pertsona ororen oinarrizko eskubidea dela aitortzen dugu. Horregatik, pertsona oinarri izango duen Osasun Sistema publiko, ekitatibo, unibertsal eta kalitatezkoaren egitura aldarrikatzeaz gain, eraikitzeko konpromisoa adierazten dugu, gaur egungo errealitate administratibo desberdinen errealitate eta sistemak aintzat hartuaz. Baina mentalitate eta kultur aldaketa sustatuaz, Osasuna pertsonok gure bizitzako asmo eta helburuetara ahalik eta gaitasun handienekin dedikatzeke, giza eskubide bezala ulertuz. Ongizatearen eta kalitatezko bizitza integralaren funtsezko elementua; lehen mailako faktore sozioekonomikoa, ondasun publiko globala, norbanako zein kolektiboa, eta justizia sozialaren eta

ekitatearen parte. Herritar orori sarbidea bermatuz prebentzio, ahalduntze eta artapenera.

#### f) Botere Judiziala

Aralarren ustez, botere judizialaren jarduteak, hots, jurisdikzioa bere alor ezberdinetan, giza eskubide eta segurtasunaren defentsa barne, nazioarteko maila, eta lehenengo eta behin, maila europarra, izan behar du.

Jurisdikzioaren jardute eta kudeaketa estatua bera menpekoa izan behar duen etorkizuneko Euskal Herriko estatu independentearen eginkizunetako bat da.

Euskal Errepublikak konstituzio bat eduki behar du, zeinean, oinarritzko eskubide eta botere banaketaz gain, erakunde egitura komuna eta EHko barne lurralde ezberdinen arteko harremanak zein Europako bertze nazioekiko harremanak ezartzen diren.

#### g) Udalbiltza

Entzutegi Nazionalean buruturiko prozesu judizialak bere jarduera eten eta gero, kargu guztien absoluzio orokorrak 1999n sortutako Udalbiltza berrantolatzeko aukera zabaldu zuen. 2011n hasitako ziklo politiko berriaren baitan, Udalbiltzak bere burua berrantolatu zuen, bere lan lehentasunak testuinguru sozial, ekonomiko eta politiko berriari egokituz, baina betiere bere sorrerako 5 printzipioei eutsiz (1.Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzea; 2.Euskal Herriko egitura politikoa eraikitzen laguntzea; 3. Nazio eraikuntza bultzatzea; 4. Herrialde guztietako udalerrien artean harremanak sendotzen laguntzea hainbat esparrutan; 5.Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdindua dela adieraztea nazioartean).

Zentzu honetan, 2013ko martxoan berrantolatu zenetik, Udalbiltzak Euskal Herriko garapen eta kohesioaren alorrean handituz doan lana burutu izan du, toki eta nazio mailako erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlanean. Halaber, nazio egituratzean eta Euskal Herriko udalen arteko sarea ehuntzean dihardu lanean. Izan ere, gaur egun, Udalbiltza Euskal Herriko 7 lurraldeetako hautetsiak biltzen dituen erakunde bakarra da, hots, nazio erakunde politiko bakarra.

Honengatik guztiaengatik, Aralarren ustez, Udalbiltza gaurdanik, eta herritarren gertuen dagoen maila instituzionaletik – udal maila –, egungo banaketa politiko–

administratiboaren ondorioak gainditzeko eta Euskal Herria kohesionatzeko tresna estrategikoa da.

Ondorioz, Aralarrek Udalbiltzaren eginkizunean laguntzeko borondatea adierazten du eta honek Euskal Herriko nazio eraikuntzan lanean segitzearen alde dago, betiere Euskal Herriko egungo eremu politiko-administratiboetan dauden erritmo eta sentsibilitate politikoak errespetatuz.

### 3.2.10.- Hamargarrena: Formakuntza etengabea

Aralar alderdiak bai bere barnera eta bai gizarte osora begiratu nahi du formakuntzaren arloan. Besteak beste, giza gaitasunak eta balioak garatze aldera.

Bizi dugun neokapitalismoaren fase honetan, lanbidetara egokitzeak ahalegin berezia eskatzen du formakuntzan eta, neurri horretan, zeregin horri ikuspegi publikoa eman behar zaio, batez ere, bere kudeaketan. Europako beste Estatuetan langileriaren formakuntza ikastegi publikoetan egin den bitartean, Espainian sindikatu batzuen bitartez kudeatu izanak izugarritzko atzerakada ekarri du eta, gainera, ustelkeria poltsa bat sortu. Iraultza Sozialean pertsona guztien formakuntza premia lehenetsi behar da eta neurri handi batean beste edozeren aurretik ipini.

### 3.2.11 Afiliazioaren formakuntza politiko eta ideologikoa

Aralarrek berebiziko garrantzia ematen jarraituko dio aralarkideen formakuntzari eta horretarako bitartekoak garatzeari, funtsezkoa delako herritar prestatuak izatea gizartearen beharrei erantzunak emateko gainerako indar, eragile sozial eta sindikalekin elkarlanean arituz eremu desberdinetan -kale zein erakunde mailan-.

Hori dela eta, formakuntza ideologikoa eta politikoa indartzeko helburua ezartzeaz gain, bitarteko desberdinak garatzen eta ahalbidetzen ahaleginduko gara -presentzial zein digitalak-; hausnarketa guneak bideratuko ditugu barne mailan zein kanpoko eragile desberdinekin konpartituz; borroka ideologikoa sendotzeko orain arte bezala sentsibilizazio kanpaina zein hitzaldi, mahai inguruak antolatuko ditugu alderdi edo eta fundaziotik.

Halaber, militantziaren aktibazioa eta parte hartzea sustatzeko azken Biltzarraldi honetan eginiko saiakera desberdinak jarraitzeaz gain, bestelako bideak esperimintatu eta jorratzeko erabakia hartzen da.